

GAIA: EHBE, AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK • ESPERIENTZIA:
ERALDAKETA PROZESUAK • ESPERIENTZIA: IKASLEEN KOOPERA-
TIBA • EKARPENA: ESKOLAKO AGENDA 21 • CAROLINE PHILLIPS

hh
hik hasi

115

4 EURO • 2007KO OTSAILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

ELKARRIZKETA


**Elizabeth
Coelho**

“Aldamioen
eredua
erabiltzen
dugu
etorkinei
gure
hizkuntza
irakasteko”



Lau idazle handi, lau marrazkilari trebe
lau liburu eder, lau altxor irakurlearentzat

HARKAITZ CANO - KOLDO IZAGIRRE - PAKO ARISTI - UNAI ELORRIAGA



aurkibidea



8
gaia

EHBE, AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

Euskal Herriak Bere Eskolak III. Nazio Mintegiak ospatu berri ditu, eta baita bere V. urteurrena ere. Hiru hilabeteko hausnarketa eta eztabaida prozesuaren ondotik, Aldarrikapen Taula berri dute eta hurrengo urteetan hezkuntza esparruan gai eta kezka nagusiak izango direnak zehaztu dituzte.



18
elkarrizketa

ELIZABETH COELHO

Kanadako Toronto Unibertsitateko irakaslea da, baina aurten Ontarioko Hezkuntza Ministerioan dabil lanean. Kultura eta hizkuntza aniztasunaren arloan eskoletako esperientzia eta ikerketa uztartzen dihardu urteotan.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

EHBE, AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

16 elkarrizketa

ELIZABETH COELHO

26 esperientzia

Eraldaketa prozesuak

Parte-hartzean oinarrituriko metodologiak bideratuz

30 esperientzia

Asturan: pausoz pauso kooperatiba bat aurrera eramanez

Andoaingo La Salle-Berrozpe ikastetxea

32 ekarpena

Eskolako Agenda 21 programa munduan zehar (I).

Europatik kanpo

Jose Manu Gutierrez, Jon Benito eta Ritxi Hernandez

35 berriak

41 ...goza nazazu gehiago!

Erabilera janditzen

Jaime Altuna

46 Atzeko atetik

Caroline Phillips

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com;

Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karnele Perez Urroza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Elizabeth Coelho (Hik Hasi). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2007-I-31). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararitzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala otsaila

Hezkuntzan ere, hitz egitea eta erabakitzeak ahalmena izatea dira konponbideak



“Euskaldunok azken mendeetan bizitzen ari garen gatazkak eragina du hezkuntzan.”...

“Hezkuntzak ez al du balio behar jende eta herri askeak egiteko?”...

“Aniztasunaren eta elkarbizitzaren alde eskoletan egiten den ahaleginak balio beza herri identitatea eta kohesioa lortzeko.”...

Hezkuntza norbanakoaren, jendartearen, herrien eta mundu global osoaren etorkizuna da.

Zer etorkizun baino? Galdera horri erantzuteko, nolako jendea, jendartea, herria eta mundua nahi dugun adostu beharko dugu. Zein balio indartu, nolako elkarbizitza prestatu... Azken finean, gure ondorengoei zer mundu utzi nahi diegun irudikatu beharra daukagu eta hori lortzeko hartu beharreko neurriekin koherenteak izan.

Lurrunezko motorea asmatzearen ondotik, eta azken hamarkadetan batez ere, teknologiaren garapena eta bizitzaren erritmoa izugarri azkartu dira. Hori kontuan hartuz, badakigu zaila izango dela zer gerta litekeen irudikatzea, baina jendarteak mende ugari daramatza munduan eta asko ikusi eta ikasi du den-

bora horretan guztian. Badu intuizio nahikoa, “intuizio zientifikoa” deitu genezakeena, etorkizunean gerta litezkeen ondorioak aurreikusteko, modu batera edo bestera jokatzeko dugun ikusiz.

Hezkuntzak zerikusirik handia du etorkizuna prestatzeko orduan. Eta hezkuntza ez da etxearen eta eskolaren ardurak bakarrik. Gaur egun, aisialdiak, eskolaz kanpoko ekimenez, komunikabideek, internetek eta abarrek eragin handia dute norbanakoaren eta komunitateen heziketan.

Aldaketa handiak gertatzen ari direla munduan, eta eskolaren egitekoak aldatu beharra daukela ondoriozta genezake.

Badakigu, bestalde, hainbat urtetako jokamoldeek eta inertziek eraginda, zaila izango dela bat-bate-

ko aldaketak gertatzea eskoletan, antolaketa eta egitura administratibo zaharrek ez baitute horretan ezer laguntzen.

Euskal Herriak, gainera, aspaldi jasaten dituen hainbat indarkerik eta herri gutxiagotuaren egoeran bizitzeak eraginda, bere berezitasun propioak ditu. Eta herri gisa ekarpenik egin nahi badu, bere hausnarke-ta propioa egin beharra dauka.

Norbanakoaren interesak babestu behar dira, bai, baina ez al da komunak diren interesak sustatzeko garaia? Ez al da instruzio gutxiago eta oinarriko konpetentziak eta balioak indartzeko unea?

Dirudienez, hori zaila izango da eskolatik bertatik eta bakarrik egitea. Hitz egitea eta etorkizuna erabakitzea denoi dagokigu. Hezkuntza herritar guztien egitekoa baita.

kronika

Urtarrilaren 30ean bildu ziren Hezkuntza Saila eta derrigorrezko irakaskuntza publiko sindikatuak, baina ez ziren inongo adostasunera iritsi.

Sindikatuaren esanetan, “akordiotik oso urrun” daude oraindik. Otsailaren 14an izango dira hauteskunde sindikalak, eta haiek bukatu arte ez dute mobilizaziorik egingo. Handik aurrera, ikusteke dago zer gertatuko den.

Urtarrilaren 23an Hezkuntza Sailak egindako proposamena dago orain mahai gainean, baina sindikatuei ez zaie nahikoa eta egokia iruditzen. Ez dute ontzat ematen 55 urtetik gorako irakasleen egoera konpontzen hasita, 59 urte beteta dituzten Haur Hezkuntzako irakasleak soilik aintzat hartzea. Edota irakasleak egonkortzeko bai, baina birkokatze prest ez egotea. Ez dute begi onez ikusten lan eskaintza publikoa egitea aurretik egonkortasun akordiorik lortu gabe. Zalantza, kezka, kritika eta desadostasun ugari daude oraindik.



Eskolatzeko dekretu berria onartze bidean da Nafarroako Gobernua

Nafarroako Eskola Kontseiluak Nafarroako Gobernuak prestatutako eskolatzeko dekretuari oniritzia eman dio. Beraz, Nafarroako Gobernuak behin betiko onartzea izango da hurrengo urratsa.

1994. urtean ezarritako eskolatzeko dekretua dago orain indarrean, 1996an moldatu zena. Orain prestatutako dekretu berriak egungo lege berrietara egokitzea du xede.

Nafarroako Eskola Kontseiluko partaide diren hainbat sindikatu eta elkarte dekretuaren kontra agertu dira, baina Eskola Kontseiluaren bileran ez zuten eztabaidatzeko aukerarik izan. Euren esanetan, “Hezkuntza Kontseiluarekin bat egiten duten kideek gehiengo dute Eskola Kontseiluan, eta ez dago eztabaidatzeko aukerarik”.

Horregatik, bileratik atera egin ziren. Aurretik manifestu bat sinatu eta aurkeztu zuten aipatu erakunde eta sindikatuek (ADI, AFAPNA, ANPE, Herrikoa, NIZE, Sortzen-Ikasbatuaz, CCOO, CSI-CSIF, EILAS, ELA eta FETE-UGT).

Dekretuaren zirriborroa atzera bota dezaten eskatzeko arrazoi bat baino gehiago ikusten dituzte aipatu manifestuaren sinatzaileek, eta horietako bat zera da: ez duela bermatzen ikasle etorkinak sare publikoan eta pribatuan proportzioan banatzea. Gaur egun ikasle etorkinen % 80k sare publikoan dihardu eta % 20k hitzartutako ikastetxeetan. Etorkinen % 1 soilik dabil D ereduan, batik bat hizkuntza eredu buruzko informaziorik ez dielako ematen administrazioak.

Horrez gain, dekretuak Iruñea eta Iruñerria bi eremu handitan banatzea aurreikusten du. Manifestuaren sinatzaileen iritziz, horrek ez du batere lagunduko nork bere seme-alabak bere auzoko ikastetxera eramateko eskubidea betetzen. Beharren arabera plan bat egitea eskatzen dute, azpiegiturak bermatuz. Besteak beste, laguntza berezia behar duten ikasleak diru publikoa jasotzen duten ikastetxeen artean banatzea, publikoetan eta hitzartuetan sartzeko baldintzak berdinak izatea eta ikasleek beren auzoan eta nahi duten ereduan ikasteko eskubidea bermatzea.

Euskaraz mintzatu behar baldin badugu lagunok mintza gaitezen bizitzeko eta ez mintzoa bizitzeko Koldo Izagirre



Irakasle postuak galtzeko arriskua Iparraldeko eskola publiko elebidunetan

Iparraldeko eskola publiko elebidunetan mobilizazioak hasi dira irakasle postuak gutxitzeko arriskua ikusita. Paueko akademia ikuskaritzak 2007-2008 ikasturteko eskola karta finkatu behar du, eta badirudi postuak murrizteko asmoa duela; guztira 24 eta erdi 27 zentrotan, horietatik 22 elebidunak.

Hori dela-eta, urtarrilea protestak egin zituzten gurasoek, politikoez, elkarteek eta irakasleek, eta zenbait egunetan eskolak itxi ere bai. Akademia Ikuskaritzaren aurrean egindako protestan 300 lagun elkartu ziren.

Murrizketa gehienak Lapurdin izanen dira. Baionako Jean Moulin ama eskolan, esate baterako, postu erdi bat kenduko dute. Ipar Baionako Malegarié eskolan postu osoa. Eta Uztaritzeko Arrauntza auzoko eskola publiko ele-

bidunean agian frantseseko postu bat desagertuko da. Angelun gauzak ez daude hobeto; zazpi eskola publikoetatik bostetan postuak galtzeko arriskua dago. Ikasturte honen hasieran murrizketarik ez egitea lortu zuten, baina hurrengoari begira, sei lanpostu galtzeko arriskua ikusten da.

Nafarroa Beherean, Heletako eskola publikoan postu erdi bat galtzeko arriskuan dauden. 2006-2007 ikasturtearen hasieran beste postu erdi bat galdu zuten, eskola urtea hasi eta astebetera. Ikasle kopurua ez da jaitsi, kopurua mantendu egin da eta hala ere beste postu erdi bat kenduko dietela jakitean, gurasoak oso haserre agertu dira. Ez dute ulertzen murrizketa gehiagoren zergatia. Gainera, horrek eskolaren antolaketa osoa eraldatuko luke, frantseseko eta euskarazko ikasleak gela bakar batean jarri beharko lirakeelako.

Biga Bai guraso elkarteko kideek aditzera eman dutenez, neurri horiek ez dituzte aintzat hartzen testuinguru bakoitzeko berezitasunak eta beharrak, eta ondorioz, irakaskuntzaren baldintzak txartu egingen dira.

Memento, protestekin jarraituko dute otsailaren 6a arte. Egun horretan Bitariko Batzorde Teknikoa bilduko da eta hark hartuko dituen erabakiekin ikusiko da orain arteko esandakoarekin aurrera jarraituko duten ala beste zerba it proposatuko duten.

Nafarroako Gobernuak prest du Haur, Lehen, eta Bigarren Hezkuntzako curriculumen dekretua. Datorren ikasturtean jarriko da martxan LOE. Lege horrek curriculumaren % 55 zehaztuko du, eta gainerako % 45 Autonomia Erkidegoen eskuetan geratuko da. Hori garatzeko aurkeztu du Nafarroako Gobernuak curriculumen dekretuaren proiektua.

Zertzelada nagusiak baino ez ditu ematen, oraindik zehaztapenak egiteke utziz. Hizkuntzen arloan, esate baterako, hizkuntzak modu integrarean jorratzea du xede. Horretarako, etapan arteko eta hizkuntza desberdinen arteko koordinazioari ematen dio lehentasuna.

Ikastetxeen autonomiari dagokionez, Hezkuntza Kontseiluak autonomia bultzatuko du ikastetxeek euren proiektu pedagogikoa osatzeko eta ikastetxea antolatzeko.

Ikasleek garatu beharreko gutxieneko gaitasun batzuk aipatzen dira: komunikazioa, matematika, esparru artistikoa eta gizarte arloa.

Nafarroako berezko gaiak jorratzeari ere garrantzia ematen zaio, Nafarroako geografia, historia eta kultura ezagutze aldera. Erljioari dagokionez, LOEk astean gutxienez ordubete eskaini behar dela dio, baina Nafarroan gehiago izan daitezkeela aipatu du Luis Campoy Hezkuntza kontseilariak.

GAIA

Euskal Herriak Bere Eskola Aurrera begirako erronkak





EHBEk III. Nazio Mintegiak eta V. urteurrena ospatu ditu

Helburu bakarra: hezkuntza sistema nazionala. Bide argia: aldarrikapen taula. Lan molde zehatza: dinamika soziala. Osaketa sendoa: hezkuntza mugimendua. Horrela definitzen da EHBE Euskal Herriak Bere Eskola.

Euskal Herriko hezkuntza esparruan hainbat sektorek aldarrikatu izan dute hezkuntza sistema nazionalaren beharra, eta urte askotan egin da horren alde lan.

Esperientziak horiek denak biltzeko eta hezkuntza mugimendua gorpuzteko asmoz sortu zen EHBE duela 5 urte.

Berriki ospatu dituzten III. Nazio Mintegietan aurrera jarraitzeko indarra erakutsi dute.

G

Partaidetza nekeza den garaiotan, EHBE Euskal Herriak Bere Eskolak ikasleak, irakasleak, gurasoak eta herritarrak biltzea lortu du ospatu berri dituen III. Nazio Mintegietan. *Hezkuntza plazara!* leloari jarraiki, hiru hilabeteetan zehar 40 herri, auzo eta unibertsitateetan burutu dira eztabaidak eta urtarilaren 13an Altsasun egin zen batzarrekin eman zitzaion bukaera.

Duela bost urte sortu zen EHBE eta orain arteko ibilbideari errepaso emateko eta aurrera begirako erronkak zehazteko baliatu dituzte mintegiak. Eta era berean, V. urteurrena ospatzeko ere bai.

Ardatz nagusiak

EHBE herri ekimenak hezkuntza sistema nazionala sortzeko urratsak ematea izan du xede hasieratik. Eta horrekin batera, hezkuntza mugimendua gorpuztea herri ekimenen bidez.

Bide horretan, azken urteetan hezkuntza arloak izan duen garapena kontuan hartuz, Euskal Herriko hezkuntza esparruak dituen behar berriak identifikatu dituzte oraingo nazio mintegietan. Eta horrekin batera, EHBEren aurrera begirako erronkak zehaztu.

Horretarako, eta egin beharreko bidea markatzeko, Aldarrikapen Taula bat zehaztu zuten orain dela 3 urte. Orain, aldarrikapen horiek denak berriro aztertu eta birmoldatu dituzte, errealitateak hala eskatzen duelako. Beraz, Aldarrikapen Taula berriua adostu dute Altsasuko nazio mintegian. Horrek markatuko ditu hurrengo urteetako lehentasunezko esparruak eta lanildoak.

Baina horrez gain, badira bereziki landu dituzten gai batzuk. EBHEren ustez, hezkuntza sistema nazionalak beharrezko izango lituzkeen hiru ezauga-

rri, hain zuzen ere: hezkuntza sistema nazional hezkidetzaila, eredu pedagogiko euskalduna eta hezkuntza sistema nazional herritarra eta publikoa. Gai horietako bakoitzaren inguruan ebazpen bana landu dute.

Azkenik, aipatu beharra dago hemendik aurrerako jarduera guztia **hezkuntza eskubideetan** oinarrituko dutela. Hori izango da EHBEren ardatza. Nazio Garapen Biltzarreko Hezkuntza batzordeak Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa adostu eta aurkeztu zuen eta EBHEk bere egin du, positibotzat hartuz honako arrazoi hauen gatik: "batetik, azken urteetan hezkuntza esparruan egin den baterajotzerik garrantzitsuenetakotzat dugu, esparru publiko eta pribatua, hezkuntza eragile desberdinak, unibertsitate zein aisaldi eremua... helburu bakar baten norabidean biltzeko gaitasuna izan duela: hezkuntza sistema nazionalaren norabidean. Eta bestetik, euskal herritarro dagozkigun hezkuntza eskubideak lehenengo aldiz zerrendatu direlako".

Parte-hartzearekin gustura

Orain arte esandakoaz gain, EHBEren antolaketari begira ere hainbat egiteko definitu dituzte, betiere herri mugimendua sustatzen jarraitzeko. Besteak beste, hezkideen figura indartzen eta zaintzen eta herrietako lan taldeak dinamizatzen saiatuko dira.

III. Nazio Mintegi hauetan hezkuntza esparruko hainbat eragilerekin egon dira harremanetan: eragile pedagogikoak, ikasle mugimendua, sindikatuak, unibertsitate mailako eragileak, ikastetxe sare desberdinak... eta oso gustura gelditu dira elkarlanak eman duenarekin eta jasotako ekarpenekin.



Tailerrak

Altsasuko III. Nazio Mintegietan eztabaida tailerrak osatu ziren eta bakoitzean hezkuntza esparruko gai bat izan zen aztergai eta eztabaidagai. Helburua esparru horietako bakoitzean dauden beharrak identifikatzea izan zen.

Hezkidetza

Tailer honetan hezkuntza sisteman hezkidetzaren edo parekidetasunaren egoera nola dagoen aztertu zen, honako atal hauetan banaturik: edukiak, hizkuntza, materiala, ikastetxearen antolaketa, espazioaren antolaketa, jarre-rak, balioak, ebaluazioa, ikastetxeko eragileen arteko harremanak eta jarduerak-prozedurak eta metodologia.

Atera zen ondorio nagusia zera izan zen: egungo hezkuntza sistemak emakumezkoen zapalkuntza bultzatu eta iraunarazten duela, sexu eta generoaren araberrako bi mundu bereizi sortuz eta pertsonen garapen integrala zailduz eta oztopatuz.

Egoera hori gainditzeko, hezkuntza mundutik, elkarte parekide bat eraikitzeari begira, egin daitekeen ekarpenik handiena hezkidetza dela ondorioztatu zuten. Hau da, generoa eta sexua kontuan izan gabe egiten den pertsonaren heziketa, pertsonen garapen integrala bultzatu nahi duen heziketa.

Hezkuntzatik, jendarte parekidea eraikitzeari begira, egin daitekeen ekarpenik handiena hezkidetza da.



Pedagogia

Euskal Herriak ba al du eredu pedagogiko propioirik? Zein behar ditu hezkuntza esparruak pedagogiari dagokionez? Zeri erantzun behar dio Euskal Herrian ezartzen den eredu pedagogikoak?

Galdera horiei erantzuna bilatzeko saiakera izan zen tailer hau. Euskal Herrian izan diren hainbat esperientzia pedagogiko bergogoratu ziren eta baita egungo euskal mugimendu pedagogikoaren osasuna aztertu ere. Galdera batetik abiatu ziren horretarako: zer baliok egiten gaitu euskaldun? Talde lanak, euskarak, arduratsu izateak edo arduraren kontzeptu horrek, kolektiboa hezteak, askea izateak, herri aske batean pertsona askeak izateak, autogestioak... Hori guztia aintzat hartu beharko litzateke gaur egungo ikasleak hezterakoan,

horren baitan egongo baita haien jarrera.

Zein izan behar du hezitzaileen ekarpena herri identitate arlo horretan? Galdera horri ere buelta batzuk eman zitzaizkion tailerrean. Gaur egun hezitzaileen prestakuntza espezialitateen araberrakoa da, eta horregatik, bakoitza bere espezialitateetik irten eta euskaldun moduan marko bat eratzeko eta hor aritzeko espazioak bilatu beharko liratekeela nabarmendu zen.

Globalizazioaren kontuarekin, zera ikusi zen: hartzen diren ereduak herri potentzia handienak direla, eta behar bada herri txikiak ezagutzeko ahalegin handiagoa egin beharko litzatekeela. Horrela, herri horiekiko konplizitatea lortuko litzateke eta sentiberatasun horretan hezi beharko lirateke gure haurrak eta haur etorkinak.



Etorkinak eta hezkuntza

Nola lortu etorkinen eskubide guztiak onartu eta hori praktikara eramatea, etorkinen hizkuntza eta kultura errespetatu eta onartzuz gure hizkuntza eta kulturaren integratzea?

Galdera horrek eman zion hasiera tailer honi, eta hainbat kontzeptu eta planteamendu agertu ziren.

Esate baterako, etorkinek hizkuntza erduekiko eta ikastetxeekiko dituzten hautuen inguruan eta horri eragiten dioten baldintzen inguruan kezka agertu zuten bildutakoek. Hegoaldean etorkin gehienek A ereduaren aldeko hautua egiten dute, bertakoek ez bezala, eta horrek haustura soziala ekar dezake. Iparraldean, berriz, oso zaila da datuak eskuratzea. Ghettoen arriskuak, bazterkeriaz eta sakabanatze politikaz aritu ziren. Ondorioz, garbi ikusi zen gizarte bizitzan kohesioa lantzea behar-beharrezkoa dela.

Gaur egun multikulturalismoa, interkulturalismoa, integrazioa, inklusioa eta antzeko kontzeptu ugari erabiltzen dira, eta horietako bakoitzaren planteamendua ulertzeko hainbat mo-



du daudela ikusirik, horien gaineko hausnarketa egitea interesgarritzat jotzen.

Etorkinek euskara ikastea garrantzitsua dela aipatu zen, baina baita euskal kultura ezagutzea eta bizitzea ere. Horretarako, euskararen normalizazio bidean lanean jarraitu behar dela gaineratu zen.

Harrera planak antolatzeari buruz ere hitz egin zen. Hezitzaileak ondo prestatu behar direla aipatu zen, eta bai hezitzaileek eta bai ikastetxeek baliabidez hornituta egon behar dutela behar den bezalako erantzuna emateko eta poliki-poliki helburuak lortzeko.

Tailerretik atera zen alderdirik positiboena zera izan zen: jendartearen bada-goela kezka etorkinen inguruan, euren eskubideak bermatzearen inguruan eta gure hizkuntza eta kulturaren integraztearen inguruan.

Dagoeneko proposamen ugari eta txukunak daude, eta lan teoriko asko dago egin. Hori guztia praktikan jartzeko garaia da.

Bologna prozesua

Bolognako prozesuari buruzko tailer honetan ondorio batera iritsi ziren: guk ez dugula erabaki behar Bologna prozesua ongi edo gaizki dagoen, baizik eta guk zer beharizan dugun eta zer-nolako unibertsitate eredu nahi dugun herri eta herritar gisa garatzeko.

Bologna prozesuaren ezaugarriak ikusita iritsi ziren ondorio horretara. Izan ere, hasteko, Bolognako prozesua Europar Batasunak abiatutako eta haren neurri egindako prozesua dela aipatu zen tailerrean.

Horrez gain, unibertsitatean inongo eztabaidarik eman gabe ari dela aurrera eramaten salatu zen, nolabaiteko onarpen isil batekin eta zer ekarriko duen ondo neurtu gabe. Asko Bolgonak ekar ditzakeen alderdi onak fedonez ari direla garatzen aipatu zen, eta fede on hori ez zaiola inori kendu behar. Baina horrek prozesua bera onartzea eta haren eraketan parte hartzea dakarrela ahaztu gabe.

Unibertsitatearen funtzioaz eta eraldaketaz ere hausnartu zen. Herri mugimenduen bozgorailu edo aldaketa kritikorako gune izatetik, kapital handiaren mesedetan dagoen tresna izatera pasa omen da, salbuespenak salbuespen. Horren aurrean, EHBek unibertsitateko hezkuntza komunitatearen parte-hartzea bultzatu nahi du. Bologna bezalako prozesuetan komunitate horri hitza eta erabakiak hartzen uztea funtsezkotzat jotzen tailerrean bildutakoek.

Etorkinek euskara ikastea garrantzitsua da, baina baita euskal kultura ezagutzea eta bizitzea ere.

Herritartasuna eta publikotasuna hezkuntza sistema nazionalean

Herritartasunari lotutako bi kontzeptu landu ziren tailer honetan: publikotasuna eta parte-hartzea.

Publikotasunari dagokionez, 2006ko urrian plazaratutako Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa aurkeztu zen. Publikotasunaren kontzeptu berri bat proposatzen du aipatu akordioak, abiapuntua hezkuntza eskubideak izanik. Honela dio: *“euskal herritar orok dituen eskubideak, hezkuntza sistemak guztiarentzat izango direla bermatu behar du. Bide horretan, ‘hezkuntza zerbitzu publikoak’ horiek*

ahalbidetzen direla zaindu behar du. Denona denari esaten zaio ‘publikoa’: guztiarentzat irekia denari, denon ongiriari begiratzen dionari eta guztiarentzat aukera berdintasuna garatzen duenari. ‘Hezkuntza publikoa’, beraz, herrien eta herritar guztien garapenerako beharrak asetzen dituen hezkuntza izango da, aukera berdintasunean eskubide guztiak ziurtatuko dituen kalitatezko zerbitzua”.

Parte-hartzeari dagokionez, funtsezkoa da berau bultzatzea hezkuntza herritarra izatea nahi bada, hau da, hez-



kuntza komunitateak parte hartu behar du. Horren inguruko eztabaidan hainbat hutsune ikusi ziren:

El Salvadorko eskola herritarren esperientzia



Nikola Foroni gonbidatu italiarrak El Salvadorko eskola herritarren esperientzia kontatu zuen tailerrean, eta parte-hartzearen adibide garbia izan zen. El Salvadorko gerra zibilean FMLNk indarra zuen lekuetan komunitateak kudeatutako eskolak irekitzen hasi ziren. Milaka haur eta irakasle bildu ziren eskola alternatibo haietan. Horietako asko irakasle titulurik gabeak ziren, baina pedagogia alternatibo batean aktiboki inplikatu zirenak. Gero, bake prozesuaren ondoren, gobernuak bere gain hartu zuen hezkuntza: “nik zerbitzua eman eta zuek ikasi” zen haren leloa. Eskola herritarrek indartsu eta sendo zeuden lekuetan ez zuten onartu, eta euren ereduari eutsi zioten. Euren ezaugarriak ikusita, bazituzten horretarako arrazoiak, eta Euskal Herriko baliagarriak izan daitezke ezaugarri horiek:

- Hezkuntza eskubide bat denaren kontzientzia zabaldu zuten. Hezkuntza eraikuntza prozesu bat zen eta ikasleak subjektu.

- Curriculum propioa eta malgua garatu zuten.
- Teoria eta praktika uztartu zituzten.
- Tartean zeuden pertsona guztiak ordezkari zuzena zuten.
- Herri desberdinetakoak elkartu eta eztabaidatu egiten zuten.
- Herriko liderrekin eta jendearekin harreman zuzena zuten, haiek eskolan inplikatzeko zirelarik.



- Eztabaidatzeko guneen beharra.
- Haurren garapenerako ekintzak egiten dira, baina haurrak ekintza horien gainerako erabakietan parte hartu gabe.

- Hezkuntza komunitatea osatzen duen subjektu bakoitza bere funtzioari oso lotuta dago eta horretara mugatzen da: gurasoak guraso paperean, irakaslean irakasleenean... Eta horrek indibidualtasunera bideratzen du hezkuntza praktika.

- Pedagogia arloa gero eta espezializatuagoa dago eta askotan kanpotik bideratzen da eskola barruko orientazioa.

- Ikastetxeetako ikaste prozesua argitaletxeetan oinarritua dago: bai edukian, bai metodologian...

- Hezkuntza eta herriaren arteko loturan hutsunea dago.

Hori dena ikusita, gauzak aldatze aldera, zera ondorioztatu zen tailean:

- Parte-hartzea bultzatzeko egin behar den lehen aldaketa eskola barruan kokatu behar dela.

- Funtsezkoa dela hezkuntza eta herriaren arteko lotura egitea, hezkuntzak herritarra izan behar badu.

- Metodologia edo hezkuntzaren gainerako hausnarketa egiteak ez duela lan karga bat ekartzen, baizik eta lagungarri eta bideragarri izan daitekeela.

Funtsezkoa da parte-hartzea bultzatzea hezkuntza herritarra izatea nahi bada.

Aldarrikapen Taula berritua

EHBERentzat lehentasunezkoak diren aldarrikapenak eta egitasmoak:

Haur eskola hezitzailea eta euskalduna

- Hezitzailea: eskaintza integrala gainerako etapekin koordinazioan, haurra da heziketa prozesuaren subjektu eta langileria osoak eduki behar du funtzio hezitzailea.

- Hizkuntza eskubideak bermatuz, euskaraz hezi eta euskaraz elkarbizitzen ikastea da helburua.

Escolak euskaldundu behar du

- 107.768 sinadura bildu ziren "eskolak euskaldundu behar du!" herri dinamikarekin.

- Euskara eskubidea da: escolak euskalduntzea bermatzeko murgiltze eredu da bidea.

- Hori lortzeko irakasleria euskaldun prestaturik behar da.

- Euskaldundu ez diren ikasleei kalte ordaina zor zaie.

- EHBEk herri dinamika susatuko du eta nazio estrategia eraginkorra gauzatzeko lan egin.

Euskal escolak euskal curriculum

- Euskal curriculumaren aldeko dinamika soziala: definiziotik aplikaziora jauzia eman.

- Hezkuntza eskubideetan oinarritutako egitasmo pedagogikoa gauzatu.

- Euskal curriculuma Euskal Herri osoan garatzen lagundu.

Lanbide eskola euskalduna

- Eraldaketarako lehentasunak euskara, zonaldearen araberrako beharrak eta sexu bereizketak gainditzea dira.

- Lanbide Heziketarako ikastetxeak eraldatzeko neurriak hartu.

- Lanbide Heziketen euskalduntzearen aldeko mugimendua berpiztu.

Euskal Herriak euskal unibertsitatea

- Euskal unibertsitatea: dinamia propioa garatu eta bideak zabaldu.

- Egungo unibertsitateetatik euskal unibertsora igaro.

- Euskal unibertsotik euskal unibertsitatea aldarrikatu.

Edurne Larrañaga: “Ebazpen modura landutako hiru gaiak oinarritzakoak dira hezkuntza sistema nazionalaren eraikuntzan”

III. Nazio Mintegietan hiru gairen inguruko ebazpenak egin dituzte, hau da, hezkuntzarekin lotutako hiru gai sakonago landu dituzte. Horien inguruko xehetasunak eskatu dizkiogu Edurne Larrañaga EHBEko kideari.

Zergatik landu dituzue hiru ebazpen berezi?

Hiru arrazoik bultzata sortu dira ebazpenak. Alde batetik, hilabete hauetan aurrera eraman dugun eztabaida prosezuan atera diren gaiak izan dira. Kezka gehien sortu duten gaiak, alegia. Bestetik, aurrera begira garrantzi berezia hartuko duten gaiak direla iruditzen zaigu. Eta azkenik, eskolaren inguruan sortu diren diagnostiko eta iturri desberdinetan landu diren gaiak izan dira, hala nola euskal curriculumean, bilgune feministaren minimoen taulan eta abar.

Azken finean, gure hausnarketa eta errealitatean sortzen diren egoerak ikusita, gai horietan interes eta kezka berezia zegoela ikusi dugu, eta garrantzi gehiago eman diegu. Horregatik sortu dira aipatu ebazpenak.

Zer balio edo berezitasun ematen die ebazpen izateak?

Hasteko, hiru gaiak gure Aldarrikapen Taulan txertatzeaz gain, ildo berezi modura hartzen ditugula esan nahi du. Zehar lerro gisa garrantzia ematea baino nahiago izan dugu hezkuntza sistema nazionalaren eraikuntzan oinarritz-



ko minimo gisa hartzea. Horrela, bakoitza modu berezitan landuko dugu.

Hezkuntza sistema nazional hezkidetzaillea. Hori da gai horietako bat. Zergatik da funtsezkoa ezaugarri hori?

Euskal curriculumean herritarren ekarpenak egin zirenean, gai honen inguruko diagnostiko bat egin zen hamar puntutan oinarrituz: edukiak, materiala, hizkuntza, espazioaren antolaketa, ikastetxearen antolaketa, jarrerak, balioak, ebaluazioa, harremanak eta jarduerak-prozedurak-metodologia. Arlo horietan egoera nolakoa zen aztertu zen, eta nahiko kezkarria zela ondorioztatu: eskolaren bitartez transmititzen den hezkuntza sexista dela eta gizon eta emakumeen baitako heziketa egiten dela, ez pertsonen arabera. Txikitatik hasita egiten da bereizketa. Egoera orokorra hori da, baina horrek ez du esan nahi ikastetxe guztietan hala gertatzen denik.

Hori ikusita, guk geuk ere hausnarketa egin dugu. Badakigu hezkuntzak ezin dituela jendartearen arazo guztiak konpondu, baina bai ekarpen bat egin.

Kasu honetan, gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna bilatzeko bidean, ikusi dugu hezkuntzatik egin dezakegun ekarpenik osatuena hezkidetzaren aldarrikapena eta praktika uztartzea dela. Gure lana aldarrikapen dinamika sozialean datza, baina horrekin batera praktika eraldatzea lortu behar dugu.

Ba al dakizue nondik hasi eraldaketa hori?

Bai. Euskal Herriko Bilgune Feministak Minimoen Taula egin zuen eta bertan zehazten dira zein hamar esparru diren eraldatzeko premia berezia dutenak, lehen aipatu ditugunak, hain zuzen ere: edukiak, materiala, hizkuntza, espazioaren antolaketa, ikastetxearen antolaketa, jarrerak, balioak, ebaluazioa, harremanak eta jarduerak-prozedurak-metodologia.

Orduan, alde batetik, arlo horietan hezkidetzak bermatzen saiatuko gara. Eta beste alde batetik, geure Aldarrikapen Taulako lehentasunetan parekidetasunik badagoen edo ez behatuko dugu.

“Hezkidetzaillea: Bilgune Feministaren Minimoen Taulako hamar esparruetan hezkidetzak bermatzen saiatuko gara”.



Bigarren ebazpena eredu pedagogiko euskaldunaren ingurukoa da. Zer esan nahi du horrek?

Gure ustez, hezkuntza sistema nazionala egunez egunez eta urratsez urrats ari gara eraikitzen, bakoitza bere esparruan. Hor ditugu euskal curriculum, euskal unibertsitatearen proiektua, irakasle eskolak euskal jendarteren beharretara egokitzeko eta eraberritzeko beharra, irakasle euskaldunen beharra, ikaslea hezkuntza prozesuaren subjektu bilakatuko duen planteamendua...

Egitasmo horiek sorrera fasean daude eta egunen batean aplikatu egingo dira, eta aplikatzeaz gain, garatu egin beharko dute. Eta hor bi oztupo nagusi ikusten ditugu: batetik Euskal Herriak bizi duen egoera administratibo eta juridiko desberdina, eta bestetik egitasmo horiek aplikatzeko zer bitarteko, metodologia edo pedagogia erabiliko den.

Bigarren arlo horren inguruko kezka sortu zen eta eztabaida eta iritzia areagotzen ari dira. Hori dena ikusita, ondorio bat atera dugu: badagoela mugimendu pedagogiko bat Euskal Herrian, eta baduela gogoia, beharra, premia eta prestutasuna hausnarketa bati ekiteko.

Hortik abiatuta, guk ez dugu esango zer-nolako pedagogia zehatza behar dugun. Gure egitekoa, herri ekimen gisa, hausnarketa hori plazaratzea eta bultzatzea izango da, betiere hausnarketak oso zabala izan beharko lukeela aintzat hartuta. Hau da, hezkuntza komunitate osoaren, irakasle eskolen eta mugimendu pedagogikoaren elkarlanean eta elkartrukean oinarritu behar duela uste dugu.

“Pedagogia euskalduna: euskal curriculum, euskal unibertsitatea eta beste hainbat egitasmo aplikatzeko geure pedagogia propioa behar dugu”.

Dena dela, eredu pedagogiko euskaldun batetaz ari bagara, ezaugarri zehatz batzuk edukiko ditu. Zein izango lirarteke, zuen ustez?

Bai, gure ustez gako edo ezaugarri batzuk baditu. Hasteko, eredu pedagogiko horrek Euskal Herri osoarentzat bat eta bakarra izan behar du, baina garrantzia emanez tokian tokiko hezkuntza proiektuak aurrera ateratzeko eskola bakoitzak izan dezakeen eredu berezituari. Izan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu zentro bakoitzak bere berezitasunak lantzea, baina horrek ez du kentzen eredu pedagogiko komun bat edukitzea Euskal Herri osoan, eta guretzat hori beharrezkoa da, gainera.

Beste funtsezko ezaugarri bat hezkuntza eskubideak bermatuko dituen eredu izatea da. Garrantzitsua da baita ere pedagogia hori herri ikuspegiz lantzea eta euskalduna izatea. Euskal herritarrak heztea izan behar du helburu. Eta hezkuntza esparruak dituen erronkei erantzun egokia emango dion metodologia egokia erabili behar du. Eredu pedagogikoak hezkidetzalea izan behar du, noski, emakume eta gizonen aukera berdintasunean oinarrituko dena. Horrez gain, ikaslearen ahalmen guztiak garatzei begira diseinatuko den pedagogia eredu izan behar du eta hezkuntza prozesua modu integra-

lean landuko duen metodologia eduki behar du.

Hirugarren ebazpenari dagokionez, hezkuntza sistema nazional herritarra eta publikoa definitzen du. Zer dago bi adjektibo horien atzean?

Publikoa diogunean, kontzeptu berri batetaz ari gara, hau da, Oinarriko Hezkuntza Akordioan definitzen den publikoaz. Izan ere, orain arteko publikotasun eredu inposatua izan da eta zatiketa sortu du hezkuntza komunitatearen barruan. Definizio berriak hori gainditzeko aukera ematen duela ikusten dugu.

Bestetik, Euskal Herrian eraikitzen ari garen hezkuntza sistema nazionalak herritarra izan behar duela diogu, hau da, hezkuntzak herri proiektuaren parte izan behar du eta hezkuntza komunitatea osatzen duten ikasle, irakasle, guraso eta langileen nahiz herritarren parte-hartzean oinarritu behar du. Aldebikoa izan behar du: herria-hezkuntza, hezkuntza-herria. Joan-etorri bat egon behar du. Hezkuntzak herri proiektu bat izan behar du eta hori guztion egitekoa da. Horregatik, denen parte-hartzei ere garrantzi handia ematen diogu, eta hori bultzatzen ere saiatuko gara.

“Herritarra eta publikoa: herritarren parte-hartzea eta Oinarriko Hezkuntza Akordioan definitzen den publikotasuna zutabe dituen”.

elizabeth coelho

ELKARRIZKETA

Ontario Hezkuntza Ikasketen Institutuko
Irakasle Prestakuntza Programaren arduraduna
(Toronto Unibertsitatea, Kanada)

“Aldamioen eredia erabiltzen
dugu etorkinei gure hizkuntza
irakasteko”



“ Etorkinek eskolan sortzen duten egoera zaila da, besteak beste bi arrazoi hauengatik: hizkuntza eta curriculumaldi berean ikasi behar dituztelako beraiena ez den hizkuntza batean eta bertako haurrak baino beranduago hasten direlako.

”

Kanadako Toronto Unibertsitateko irakaslea da, baina aurten Ontarioko Hezkuntza Ministerioan dabil. Unibertsitatean Ontario Hezkuntza Ikasketen Institutua dago eta bertako Irakasle Prestakuntza Programaren arduradunetako bat da. Kultura eta hizkuntza aniztasunaren gaian erabat murgilduta dabil aspalditik. Kanadan biztanle gehienak etorkinak dira, etorkinen herrialdea da. Lehen, bigarren eta hirugarren belaunaldiko etorkinak bizi dira elkarrekin. Asko ikasi dute elkarrekin, eta hezkuntza esparruan ere bai. Kultura eta hizkuntza aniztasuneko geletan ikasteaz eta irakasteaz asko ikertu eta hausnartu dute. Ezagutza eta esperientzia pilatzen joan dira eta horren berri ematera etorri da Elizabeth Coelho Euskal Herrira.

Ikasle etorkinen eskolatzeko prozesua arrakastaz egiteko ildo nagusiak ezagutzen ditu. Ikasle horien jarraipena egiten du: datuen jasoketa, interpretazioa eta ebaluazioa. Ateratako ondorioez baliatzen da materiala egiteko eta esku-hartzea egokitzeko. Horrez gain, baliabideak sortzen ditu aholkularientzat, irakasleentzat eta ikasleentzat. Esperientzia aberatseko emakumea da eta guretzat baliagarriak izan daitezkeen hainbat ideia eman dizkigu.



Kanada etorkin asko dituen herrialdea da. Nolako etorkinak jaso izan ditu? Kualifikatuak, alfabetatuak...?

Kanadak immigrazio plan bat dauka, oso garatua, urtean 300.000 pertsona berri artatzen dituen. Munduko immigrazio programa handiena duen herrialdea da eta horrek etorkinak erakartzen ditu. Hiru motatako pertsonak etortzen dira:

1- Lan kualifikatua egitera datozenak. Pertsona horiek eskaera bat egin behar izaten dute eta ingelesa edo frantsesa dakiten baloratzen da. Normalean eskaerak onartu egiten dira.

2- Lan txarragoak egitera etortzen direnak: sasoikako langileak, etxekoladak egitera datozenak, pertsona helduak zaintzera...

3- Errefuxiatuak. Batzuk gerratik ihesi (Sudan, Somalia, Sri Lanka...), beste batzuk arazo politikoetatik ihesi (Hego Amerika...). Gutxi gorabehera urtero 50.000 onartzen dira. Sarritan oso pertsona kualifikatuak dira, baina batzuetan ez.

Ondorioz, eskoletan ere ikasle desberdinak dauzkagu: batzuk sekula eskolara joan ez direnak eta beste batzuk oso-oso heziketa ona dutenak eta askotan haur kanadiarrek baino jakintza gehiago dutenak.

Nola moldatzen zarete hain egoera desberdineko haurrek eskolan elkarrekin ikasteko?

Ontario da haur etorkin gehien jasotzen dituen probintzia eta hango egoera azalduko dut.

Bi hizkuntza programa dauzkagu. Lehenengoa ingelesa bigarren hizkuntza modura duena. Euren ama hizkuntza ingelesa ez duten ikasleentzat da,

baina aurretik eskolara joanak direnak, hau da, euren ama hizkuntzan alfabetatuak daudenak. Horiek prest daude eskola berri batean sartzeko.

Bigarren programa ingelesean alfabetatzeko programa da. Euren hizkuntza propioan alfabetatu gabe edo oso gutxi alfabetatuta dauden haurrentzat da programa hau. Beraz, ezagutzen ez duten hizkuntza batean ikasi behar dute irakurtzen eta idazten. Hauen erronka askoz ere handiagoa da. Izan ere, batzuk urte asko daude atzeratuta, inoiz ez direlako eskolara joan. Haur hauei programa intentsibo bat ezartzen zaie egun erdirako edo herenerako, ez egun osorako. Izan ere, sozializazioa funtsezkotzat jotzen dugu eta ez dute eurek bakarrik egon behar denbora guztian, bertakoekin ere erlacionatu behar dute. Adibidez, hasieratik Heziketa Fisikoa eta Artea gainerako ikasleekin batera egiten dituzte. Aipatu programan Ingelesa, Matematika eta Gizarte irakasten zaizkie oso modu intentsiboan. Urte bat edo bi egoten dira eta gero gela arruntetan jarraitzen dute. Batzuetan euren eskolan bertan ezartzen da programa hau eta beste batzuetan beste zentro batean biltzen dira behar hori dutenak.

Etorkinek harrera gizarteko hizkuntza ikasi behar dute eta denentzat da erronka, bai ikasleentzat eta bai irakasleentzat. Zergatik da hain zaila?

Hasteko, hizkuntza eta curriculum aaldi berean ikasi behar dituztelako, berriena ez den hizkuntza batean. Hori da lehendabiziko zailtasuna. Eta bigarrena, adina edo horren araberako atzerapena. Izan ere, bertako haurrak baino beranduago hasten dira hizkuntza eta edukiak ikasten. Esate baterako, Torontora 5 urterekin iristen den etorkina gainerako haurrak baino 5 urte beranduago hasten da ingelese ikasten. 10 urte baldin baditu, 10 urteko atzerapena izango du ingelesean; ez bere ama hizkuntzan, baina bai ingelesean. Eta 15 urtekin etortzen bada, 15 urte egongo da atzeratuta. Beraz, zenbat eta beran-



duago iritsi, orduan eta denbora gutxiago dute ingelese ikasteko.

Sarritan gelan egoten dira eta ez dute ezer ulertzen, ingeles maila oso altua eta zaila delako eurentzat. Horrez gain, zenbait ikasgai berriak izan daitezke. Esate baterako, ez dakite ezer Kanadako historiari buruz. Euskal Herrira etortzen diren etorkinek ere ez dakite ezer Euskal Herriko historiari buruz. Beraz, Euskal Herriko historiari hitz egitean, ez dute ezer ulertzen.

Hortaz aparte, ikasle horiei hitz egiteko eta hizkuntza erabiltzeko aukera eman behar zaie, horrela lortuko baitute hizkuntza ikastea. Irakasleak hori aintzat hartu eta lagundu egin behar die.

Azkenik, filtro afektiboa dago. Irakasleak beldurtuta, urduri... baldin badaude, hizkuntzaren ikaskuntza gelditu egiten da. Horregatik, gelako giroa atsegina, beroa eta segurua izango dela ziurtatu behar da. Orduan, irakasleak hizkuntzarekin esperimintatzeko prest agertuko dira, gelan ongi etorriak direla sentituko baitute.

Zailtasun horiei aurre egiteko aldamioren eredu erabiltzen duzue? Zer da?

Eraikin bat egiteko erabiltzen den metodoa da: aldamia gero eta gorago igotzeko erabiltzen da, eta eraikina sendotzen den heinean, aldamia kendu egiten da. Denboraldi baterako laguntza da.

Irakaskuntzan aldamioren eredu aurrerakoa da: irakasleak ikasleari denboraldi

baterako ematen dion laguntza. Irakaslearen lana pixka bat zaildu egiten da, ez asko, pixka bat soilik, aurrera egiteko adina, eta irakasleak hurrengo urrats hori ematen laguntzen dio. Beste modu batera esanda, ikasleei duten maila baino haratago jardutea ahalbidetzen dien aldi baterako laguntza da. Beren kasa ezingo lukete horra iritsi.

Behin aurrerapausoa eman ondoren eta irakaslearen aldetik *feed-back*a egonez gero, beren kasa egiteko gai izango dira. Orduan, irakasleak gorago jartzen du aldamia hori, aurrera jarrai dezaten.

Vigotskiren "garapen zona hurbilaren" kontzeptuan oinarritzen da aldamia: irakasleak elkarreaginean jartzen dira helduekin edo herritar helduagoekin, zeinak irakasleak baino maila altuagoan jarduten duten elkarreagin horretan, eta horrela, ikasleen maila eta ezagutza igo egiten da.

Haur etorkinen kasuan, aldamioren helburua hizkuntza eta curriculum ikastea direnez, irakasleak hitz egitea funtsezkoa da.

Orduan, gakoa irakasleak mintzaraztea da. Hori da estrategia.

Bai. Ikasten ari diren horretaz hitz egiteko aukera baldin badute, askoz gehiago ikasten dute. Ikasle etorkinentzat eta hizkuntza ikasten ari diren ikasleentzat funtsezkoa da ideiak edo azalpenak berriro entzutea, azalpenak emango dizkien norbait edukitzea, eta euren hizkuntza hitz egiten duen la-

“Aldamioen eredu zera da: irakasleak ikasleari denboraldi baterako ematen dion laguntza. Horrela, ikasleak bere ezagutza maila igotzen du, eta irakasleak aldamia goraxeago jartzen dio igotzen jarrai dezan.”

guntzailea badin badute, askoz hobe. Talde txiki eta seguruetan galderak egiteko eta hobeto ulertzeko aukera behar dute.

Hori da gure geletan erabiltzen dugun estrategia, eta zuek ere zuen geletan erabil dezakezuen: sarritan gelditu, ikasleei galderak egin eta hitz egin dezatela beraiek. Egon ziur ikasle etorri berriek ulertu eta jarraituko dutela.

Estrategia hau gainerako ikasleentzat ere egokia da. Edonori bere ideiak azaltzeko aukera ematen baldin bazaio, hobeto ulertzen du. Beraz, denentzat da onuragarria eredu hau.

Jarriko al zenizkiguke aldamioren ereduaren adibide batzuk?

Adibidez, orain dela 3-4 aste iritsitako ikasle etorkinen gela batean 14-16 urteko gazteak daude. Herrialde askotatik etorritakoak biltzen dira bertan. Orduan, irakasleak jendea zein lekutan bizi den galdetzen die. Ikasleek etxeetan eta apartamentuetan erantzuten dute. Irakasleak bien artean zein desberdintasun dauden galdetzen die. Ikasle batek dio etxea norberarena dela eta apartamentua alokatua. Ondoren zerrenda bat egiten dute etxeko gela desberdinekin, irakasleak arbelean idazten duelarik. Ea horietako zein konparatu nahi dituzten galdetzen die irakasleak, eta bainugela eta sukaldea aukeratzeko dituzte. Hurrengo urratsa bietan ikusten dituzten gauzak esatea da. Ondoren, bainugelak soilik daudenak aipatzeko eskatzen die. Jarraian, Bent-en diagramaren antzeko bat egiten du irakasleak aipatutako gauzak sailkatzeko. Diagrama hori Zientzietan asko erabiliko dutela aipatzen die. Azkenik, denen artean ipuin bat idazten hasten dira. Irakaslea hasten da eta ikasleei galderak eginez esaldiak osatzen dituzte.

Gazte hauek 3-4 aste soilik daramate eta ia dena ulertzen dute. Ama hizkuntza garatua dute, idazten eta irakurtzen badakite. Baina hitz solteak esaten dituzte ingelesez, ez esaldi osoak. Uleritzen dutena eta ekoitz dezaketena ez da berdina.


Horregatik, irakaslearen estrategia garrantzitsua da. Irakasleak ez die normal hitz egiten, mantsoago, garbi, soinu guztiak arretaz ahoskatuz, marrazkiak erabiliz, keinuak eginez, arbelean idatziz, ikasleen ama hizkuntza tartekatuz... Hainbat gauza egiten ditu hobeto edo dena uler dezaten.

Horrez gain, ikasleen bizitza eskarmentua eta barne bizitza ere aintzat hartzen ditu. Ikasle gehienak herrixketan eta etxeetan bizi izan dira, eta orain, hiri batean eta apartamentu batean. Beraz, gelako elkarrizketa gaia oso gertukoa dute: zer den Kanadan bizitzea, apartamentu batean bizitzea... Euren eguneroko bizitzarekin lotuta dago eta hiztegi hori lantzen dute; behar dutena, alegia.

Era berean, gogoratu behar da ingeleza bigarren hizkuntza moduan ari direla ikasten, ez atzerriko hizkuntza gisa. Hau da, ingeleza inguruan dute, eskolako giroan, kalean... Beraz, euren aurrerapena oso azkarra da, atzerriko hizkuntza bat ikastean baino azkarragoa.

Nolakoa da aldamioren eredu denbora gehiago daramaten ikasleekin?

Beste adibide bat jarriko dizuet. Sei hilabete daramaten ikasleak Bigarren Hezkuntzako gela bat. Irakasleak lanbideez hitz egingo dutela esaten die eta ea norbaitek lan egiten duen galdetzen du. Ikasle batek baietz esaten du. Ondoren, zera galdetzen die: zer abantaila eta desabantaila dituen egun erdiko edo osoko lan bat edukitzeak. “Abantaila” eta “desabantaila” hitzak errepikarazten dizkie, ongi ahoskatzen ikas dezaten. Ikasleek erantzunak ematen dituzte, esaldi osoak. Ikasleek erantzunak eman ahala, irakasleak gauza gehiago galdetzen dizkie, eta horrela, hitz eginarazten die. Hitzak errepikarazten dizkie behin eta berriz, eta hori bera esateko beste hitzik ezagutzen al duten galdetzen die. Ikasleek esandakoak arbelean idazten ditu, eta denek esandakoarekin osatzen dute idatzia. Lan kooperatiboa da, guztien artean esandakoarekin osatzen dena. Hori da aldamioren eredu.



Aldamioen eredia praktikatzeko irakasleak estrategia batzuk erabili behar ditu. Zein?

Bat: diskurtso zaindua. Ikasleen eguneroko bizitzarekin lotutako gaiak landu behar dira. Kasu horietan edukia ez da akademikoa, baina abantailak eta desabantailak esateko eskatzen direnean, adibidez, idazkera akademikorako prestatzen ditu.

Bi: hizkuntza naturala. Kanean hitz egiten den moduan mintzatzen dira irakasleak, ikasleek hizkuntza idatziaren eta ahozkoaren arteko desberdintasuna ikas dezaten. Izan ere, garrantzitsua da ikasleek ahozko hizkuntza hori ezagutzea.

Hiru: euskarri bisualak. Marrazkiak eta diagramak asko erabiltzen dira, eta azken horiei garrantzi handia ematen zaie. Ideiak nola antola daitezkeen ikasteko balio dute eta gero idazkera akademikoan erabiltzeko prestatzen dira irakasleak.

Lau: ikasleen ama hizkuntzei erreferentzia. Lagungarria da ingelesa ikasteko.

Bost: keinuak eta mugimenduak. Asko erabiltzen dira hitzak nola ahoskatu erakusteko edo antzeko hitzen arteko enfasia aldatu egiten dela adierazteko. Gorputz osoa erabiltzen da.

Sei: arreta hiztegiaren jarri. Ikasleek oso-oso azkar ikasi behar dute hiztegia. Jatorriz ingelesak direnek 1.000 hitz berri ikasten dituzte urtean eskolan. Etorkinek hirukoitza edo laukoitza ikasibehar dute curriculum arrakastatsua izan dadin. Beraz, hiztegia lantzea oso garrantzitsua da.

Zazpi: errepikapena taldean. Hitz berriak erakustean, ikasleei behin eta berriz errepikaraztea garrantzitsua da.

Zortzi: ikasleen akatsei erantzun lagungarriak eman. Ikasleek akatsak egiten dituzte; zenbat eta gehiago ekoitzi hizkuntza, orduan eta akats gehiago. Hori normala da. Osasungarria eta ona da akatsak egitea. Kontua da gero eta hitz gehiago erabiltzea eta gero eta gehiago ekoitzea.

Bederatzi: ereduak eman. Ikasleek gaizki esaten dutena ongi errepikatu behar du irakasleak. Ez die esan behar

gaizki egiten dutenik, ez du elkarriketa eten behar eta ikasleak barregarri utzi behar. Deseroso sentiarazi gabe, berak ongi ahoskatu behar du, eredia emanez.

Hamar: moldaketak egitea eta hitzez adieraztea. Modu horretara, irakasleak ozen pentsatu eta idazten du. Ikasleek ulertu egiten dute egiten eta esaten duena. Ongi ahoskatzeari garrantzia ematen zaio.

Hamar estrategia horiek oso egokiak dira ikasleei ulertzen laguntzeko eta parte-hartzea errazteko, eta bihar bertan jar daitezke martxan. Garrantzitsua da aukera hori ematea, ikasleak beldurtuta ez egotea, bestela ez baitute hitz egingo, eta ondorioz, ikasiko. Seguru sentitu behar dute.

Aipatu duzun guztiak ingelesa ikasteko balio du. Zer tratamendu ematen diozue etorkinen jatorrizko hizkuntzari?

Orain dela 30 urte, Hizkuntza irakasle gisa hasi nintzenean, nire irakasleak zera esan zidan: ez utzi inoiz zure ikasleei beren ama hizkuntzan ikasten, inoiz ez, ingelesa soilik, ingelesa soilik eta ingelesa soilik.

Iritzia asko aldatu dugu horri dagokionez. Gaur egun badakigu ama hizkuntza garrantzitsua dela bigarren hizkuntza ikasterakoan. Ama hizkuntza zenbat eta indartsuagoa eta sendoagoa izan, orduan eta hobeto ikasiko dute 2., 3. edo 4. hizkuntza.

Nahiz eta bigarren hizkuntza ikasten aritu, ikasleek ama hizkuntza erabiltzen dute ideia sofistikatueterako. Beraz, hizkuntza hori erabiltzea mugatzen badiegu, pentsamendua mugatzen diegu. 16 urteko ikasle bati bere ama hizkuntza erabiltzen ez badiogu uzten eta ingelesez egin behar badu, urtebeteko haur bat izango da ingelesez mintzatzen denean, gaitasun murriztua duelako ingelesez.

Orduan, ikasleen jatorrizko hizkuntzak lekua eduki behar du gelan, nahiz eta guk hizkuntza hori ez ezagutu. Lagundu egin behar diogu, gainera, hizkuntza hori mantentzen.

“ Guk haur etorkinekin erabiltzen dugun estrategia eta zuek ere erabil dezakezuen honako hau da: sarritan gelditu, ikasleei galderak egin eta hitz egin dezatela beraiek. Funtsezkoa da hitz egitea, hori baita hizkuntza bat ikasteko modu egokiena.

”

Orduan, nola egiten zaie leku gelan? Emaizkiguzu adibide praktikoa batzuk.

Ikasleen hizkuntzak ikasgelako egunerokoa eta curriculumean txertatzen dira, eta irakaste prozesuan laguntzeko ere erabiltzen dira. Esate baterako, ikasturte hasieran irakasleak gelan etorkinak daudela adierazten du eta edukiak ikasteaz gain ingelesa ikasten ari direla. Eta beraz, denok lagundu behar diegula. Mezu hori ematea oso garrantzitsua da.

Adibidez, hilero hizkuntza bat aukeratzen da eta hilabete horretan hizkuntza hori dakiten ikasleek hizkuntza horri buruzko gauzak erakusten dizkiete gainerakoei: izenak, esaerak,...

Zein izaten da gurasoen jarrera?

Arlo honetan, irakasleek eta gurasoek elkarrekin egin behar dute lan, hori lortzeko. Gurasoek jakin behar dute euren lana seme-alabei ama hizkuntza mantentzen laguntzea dela. Guraso askok pentsatzen dute onena etxean ingelesa erabiltzea dela, baina eurentako askok ez dute ingelesa ongi menperatzen. Beraz, ez dira eredu egokiak. Egin behar dutena da ama hizkuntzako eredu ongi erakutsi. Ingelesa eskolan eta kalean ikasiko dute. Argi erakutsi behar zaie seme-alaba elebidunak edo eleanitzak izatea oso ona dela.

Orain dela gutxi Londresen egindako ikerketa batean ere ondorio hori ateratu dute: bi edo hiru hizkuntza dakizkiena pentsalari hobea dela, eta beraz, eleaniztasuna ona dela.

Eskola eleanitzaren potentzialitatea azpimarratzen duzue, beraz. Zer onura ikusten dizkiozu?

Hizkuntzak ikasteak mundua gerturatu du eta denok aberasten gaitu. Komunikazio globala garatu behar du gu eta egin dezakegun onena da jendeak hizkuntza bat baino gehiago ikas ditzan bultzatzea. Denok profita gaitzke testuinguru eleanitzean murgilduta.

Eskola eleanitzak beste hizkuntza batzuk ikastearen balioa azpimarratzen du. Hizkuntza aniztasuna gorai pa-



tzen du. Jarra irekiagoak sustatzen ditu kultur talde desberdinen artean. Eskola komunitateko kideei onartuak, ongi etorriak eta komunitateko partaide direla sentiarazten laguntzen du. Eta beren hizkuntzan gaitasunak garatzen laguntzeaz gain, bigarren hizkuntzan ere gaitasunak garatzen laguntzen die ikasleei.

Materialei dagokienez, erabiltzen al dituzue kultura eta hizkuntza desberdinetako liburuak? Nolako materialaz baliatzen zarete?

Sarritan liburu elebidunak erabiltzen ditugu. Adibidez, txinatarrez eta ingelesez. Gainerako haurrak ere interes handia erakusten dute beste hizkuntzetan. Gainera, hitzak eta irudiak biak edukitzen dituzte eta oso errazak izaten dira ulertzeko. Liburu elebidunak eta oso egokiak dira haurrek eta gurasoek elkarrekin irakurtzeko. Eskola askotan irakasleek, gurasoek eta ikasleek egiten dituzte liburuak euren jatorrizko hizkuntzan. Esate baterako, unibertsitatean joan aurretik egin nuen azken proiektua portugesez-ingelesko hiztegi bat izan zen. Haur etorri berrientzat egin genuen eta opari modura eman zitzaion. Gurasoei asko gustatzen zaizkie horrelako gauzak. Orain beste proiektu batekin dabilta: ikasgai bakoitzeko hiztegi espezifiko bat egiten.

Badugu beste ekintza bat ere: literatura kulturantzaren zirkuluak. Haurrak 5-6ko taldeetan jartzen dira eta talde bakoitzak liburu bat izaten du. Taldeki-deek elkarrekin irakurtzen dute liburua, eta ondoren gainerako gelakideei azaltzen die. Talde bakoitzak liburu desberdina irakurtzen du, baina denak gai beraren inguruan: familia, adiskide-

tasuna... Liburu batean Sri Lankako bi lagun izan daitezke protagonistak, beste batean Mexikokoak... Gauza bera lantzen dute, baina testuinguru eta kultura desberdinean. Orduan, antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzen ditugu. Azkenean, desberdintasun baino antzekotasun gehiago ditugula ohartzen dira haurrak: denek dute familia, denek dituzte lagunak, antzeko nahiak, antzeko sentimenduak...

Guk zorte handia dugu, liburu pila bat dagoelako ingelesez argitaratuta. Adibidez, familia gaiaren inguruan lau-pabost aurki daitezke. Agian euskaraz ez dira hainbeste egongo.

Euskal Herrian euskara hizkuntza gutxitua da. Ezin dira konparatu Kanadan ingelesak duen egoera eta Euskal Herrian euskarak. Zer iritzi duzu horren inguruan? Zer aholkatzen diguzu?

Etorkinek ez dakite hona iritsi arte hemen beste hizkuntza bat dagoenik, denek gaztelania hitz egiten dutela pentsatzen dute. Horregatik, uste dut gurasoei informazio asko eman behar zaiela eskola aukeratu aurretik.

Horrez gain, gizarteak ere irekia egon behar duela uste dut, eta baita instituzioek eta eskolek ere. Etorkinek ongi sentitu behar dute eta jakin euskaldunak irekiak direla, lagundu egingo dietela, euskara jakitea ona izango dela lana bilatzeko...

Berriro diot, gako nagusia gurasoei informazioa ematea da, eleanitzak izatearen abantailak erakutsiz eta eskolan arrakasta handiagoa izango dutela adieraziz.

Sarritan zalantza bat sortzen da hemengo eskoletan: jatorrizko euskal hiztunak eta euskararik ez dakitenak elkarrekin jartzea komeni da ala ez?

Nire iritziz talde desberdinetan jartzeak ez du abantailarik. Are gehiago, sozializazioa atzeratu egiten du, eta garrantzitsuena helburu sozialak direla uste dut.

Zer egingo dugu, txinatar guztiak



eskola batean jarri, ekuadortar guztiak beste batean eta horrela? Ez dut uste eredu egokia denik. Gizarte kulturantza daukagu eta ona da geurea mantentzeaz gain besteena ere ezagutzea.

Etxean euskaraz hitz egiten ez dutenek euskara ongi hitz egiten duten ereduak behar dituzte, eta hori da eskolan eskaintzen zaiena.

Halere, zenbait unetan aparte jar daitezke, baina ez denbora guztian, gero besteekin elkartzea komeni da.

Uste dut haur guztientzat dela onuragarria kultura, hizkuntza eta jatorri desberdineko haurrekin erlazioztatzea.

Bestalde, jatorriz euskaldunak diren haurren gurasoek ere jakin behar dute eskolatik at ere euskaraz bizitzeko aukera badagoela eta hori ere eskaini behar diete seme-alabei.

Kanadan eskola ingelesak eta frantsesak daude aukeran. Quebec-en etorkinak eskola frantsesera joatera behartzen dituzte legeak. Zer iritzi duzu horren gainean?

Etorkinek frantsesean maila ona lortzeko pentsatua dago lege hori. Aukeran utziko balitz, etorkin gehienek eskola ingelesa hautatuko lukete. Zergatik? Ingelesa erabilgarriagoa izango zaiela uste dutelako, jende gehiagok hitz egiten duelako. Gainera, etorkinak asko mugitzen dira, eta Kanadako beste lekuren batera joaten badira bizitzera, han ingelesa beharko dute. Beraz, berriro hasi beharko dute.

Orduan, haur horientzat desabantaila dela uste dut, lege horrek ez dizkiela gauzak errazten. Baina ulertzen dut zergatik egin duten legea, zentzu kulturala du.

Zein dira une honetan egiten ari diren ikerketa nabarmenenak?

Etengabe ari gara ikerketak egiten eta emaitza interesgarriak ateratzen ari gara. Esate baterako, urtero matematikako eta literaturako testak egiten ditugu 3., 6. eta 9. mailatan. Badakigu zein haur jaio ziren beste herrialde batean, badakigu zein haurrek duten ingelesa ez den ama hizkuntza bat, eta horien emaitzak eta haur kanadiarrenak edo ingelesa hitz egiten dutenenak konparatzen ditugu.

Emaitzek zera erakutsi dute: bost urte baino gehiago behar direla etorkin batek bertako baten maila hartzeko ikasgai berean.

Emaitza interesgarriena zera da: haur etorkinek kanadiarrek baino emaitza hobekien lortzen dituztela bukatzeran. PISAko ikerketek ere horixe baieztatu dute. Lehen belaunaldiko etorkinen seme-alabek, denbora pasa ondoren, bertan jaiotakoek baino hobeto egiten dute.

Horretan zerikusi handia du gurasoen motibazioak. Gurasoek jomuga oso altuak izan ohi dituzte, herrialde berrira etortzea aukera berri bat edukitzea da haientzat. Beraz, hori da haur etorkinek emaitza hobekien lortzearen arrazoi bat.

elizabeth coelho

E

“ Bi hizkuntza programa dauzkagu Ontarion haur etorkinentzat: ingelesa bigarren hizkuntza modura duena etorkin alfabetatuentzat eta ingelesean alfabetatzekoa alfabetatu gabekoentzat. ”

“ Garrantzitsua da ikasleak beldurtuta ez egotea, bestela ez baitute hitz egingo, eta ondorioz, ikasiko. Seguru sentitu behar dute. ”

Beste arrazoi bat, lehen aipatu duguna: elebidun izateko aukera gehiago dituzte haur hauek, eta horrek emaitza hobek ematen ditu. Ikerketen arabera, haur etorkinek aukera gehiago dute hizkuntza jasotzeko eta gordetzeko.

Bigarren belaunaldiko etorkin askok, oster, jatorrizko hizkuntza galdu egiten dute, eta horien emaitzak ez dira hain arrakastatsuak. Beraz, hortik ondorioztatzen dugu ezinbestean suspertu behar dela jatorrizko hizkuntza, horrek dakarrelako arrakasta akademikoa.

Beste ikerketa bat haur etorkinek Kanadan daramaten denborarekin lotuta dago. Bertan urtebete baino gutxiago daramaten 3. eta 6. mailetako ikasleak konparatu ditut, eta 6. mailakoek emaitza hobek lortzen dituzte. Alegia, haur handiagoek azkarrago eta hobeto ikasten dute. Eta hori da denak harrিতා utzi dituen datua, denek uste baitute haur txikiek azkarrago ikasten dutela. Bada, ez da hala. Haur txikiek doinua hartzen dute eta ahoskera oso ona dute, baina gramatika eta hiztegia ez. Haur handiagoek baliabide gehiago dituzte gramatika ikasteko, jatorrizko hizkuntza garatuago dutelako, hizkuntza horretako literatura askoz ere garatuago dutelako, eta munduaren ikuskera eta ulermen hobea dutelako. 3. mailan, % 22k soilik lortu zuen jarritako maila estandarra, eta 6. mailan % 60k. Alde handia da eta jendea oso harrিতා dago.

Beraz, zein da hizkuntza bat ikasteko garairik onena?

8-11 urte bitartekoa da onena. Aipatu berri ditudan argudio horiek denak daude hori defendatzeko. Munduan zehar haurrak gero eta lehenago hasten dira hizkuntzak ikasten eskoletan, eta ez nago ziur ideia ona ote den.

Zertarako balio dute ikerketa hauek?

Ikasleei laguntzeko. Oso garrantzitsua da zenbait informazio edukitzea. Esate baterako, zein herrialdeetan jaiotakoak diren, zein den ama hizkuntza,

noiz etorriak diren Kanadara, eskolara joanak diren ala ez... Hori dena jakitea garrantzitsua da, ez baita egokia etorkin denak talde bakar batean sartzea.

Gero, ikasleak gaizki baldin bada-biltza, informazio hori baliagarria izango da zergatik dabilzan gaizki jakiteko. Zeren agian ez da beren arazoa izango, baizik eta eskolarena. Akaso eskolak ez du jakingo nola lagundu. Horregatik, eskolak ikasi egin behar du ikasle talde horiekin lan egiten, motibatzen... Haur batzuentzat gogorra da eskolan egotea, desberdinak sentitzen direlako, ez dardelako motibatuta, euren kultura eta hizkuntza ez direla baloratzen ikusten dutelako... Horiekin lan egiten ikasi behar du eskolak, lehen esan dugun moduan, giro laguntzailea eskainiz.



Elizabeth Coelho HUHEZI Fakultatean eman zuen hitzaldian, hitzetik hortzera dabilzki-gun diskurtsoak praktikan jarri zituen; kulturartekotasunaren adibide izan zen: entzuleak talde txikitan jarriarazi zituen, bakoitzean ingelesa ongi ulertzen zuen bat egongo zela ziurtatuz. Berak ingelesez hitz egin zuen, astiro eta garbi. Tarteka gelditu eta talde txikitan komentatzen zen esandakoa, ingelesa zekienaren laguntzarekin.

Lan kooperatiboaren eta aniztasunaren lezio bikaina.

Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza AKORDIOA



Akordioa ezagutarazteko aurkezpenak
Lehenengoa: Iruñean otsailaren 15ean
San Frantzisko ikastetxean 18:00-20:00.
(Hurtzaindegi zerbitzua egonen da)

Jarraian: Lea-Artibai, Tolosaldea, Gasteiz,
Urola-Kosta, Bilbo, Ezkerraldea, Baiona,
Donostia, Debagoiena...

Eraldaketa prozesuak

Parte-hartzean oinarrituriko metodologiak bideratuz

Elhuyar Aholkularitzak gizarteko hainbat esparrutan hobekuntza lortzeko zerbitzuak eskaintzea du helburu, parte-hartzean eta berdintasunean oinarrituz. Herri mugimendu, eragile, enpresa eta elkarteekin hizkuntza normalkuntza planetatik abiatuta, beste arlo batzuek ere jorratzen joan izan da. Eraldaketa prozesuak *Reflect Ekintza* ikuspegiaren oinarritzen dira eta partaideak bihurtzen dira prozesuaren motore. Agurne Barruso Elhuyarreko kideak esplikatu dizkigu prozesu horien nondik norakoak.



batekin lanean ari bagara, taldea jada badago, berez klaustroa dagoelako, baina izaera hori landu eta indartu egin behar da.

Eraldaketa prozesuetan pertsonak dira abiapuntu eta oinarri, beraien lana da prozesua aurrera eramatea. Guk dinamizatu eta teknikak eskaintzen dizkiegu. Prozesuaren garapenean, prozesuaren logika ikus dezaten saiatzen

gara, egiten gaudenaren kontzientzia izateko.

Prozesuaz gain, beste oinarrietako bat parte-hartzaileen helburuak lortzea da. Baina prozesuaren oinarria prozesua bera bizitzean datza, horrek berritzen dituelako jarrerak. Horretarako, teknika askotarikoak egiten ditugu, beti ere funtzionalak. Taldearen, espazio fisikoaren eta denboraren arabera moldatzen ditugu teknikak testuinguruak jartzen dituen mugetara egokituz.


Zein dira ikuspegiaren ezaugarri nagusiak?

Identitatea da, besteak beste, prozesuaren atal garrantzitsu bat. Ibilbidea eraginkorra izateko eta azaleko prozesua ez izateko, partaideen identitatea ukitu beharko du, benetan aldaketa sakona eta iraunkorra egin nahi badugu. Identitateari buruz ari garenean, gure

Zer dira eraldaketa prozesuak?

Eraldaketa prozesuak aurrera begirako jarrera kontziente bat lantzerako bideratutako prozesuak dira. Helburua abiapuntuko egoeraren aurrean jarrera berritzea da. Batzuetan jarrera hori aldatu egingo delako eta besteetan indartu. Edozein gairekin aplikatu daitezke prozesu horiek, eta aztergaia aldatzen bada ere, ardatza beti prozesu berbera da.

Prozesu horietan une desberdinak daude eta ez dute zertan kronologikoki memento desberdinetan izan behar. Helburuetako bat parte-hartzaileek osatzen duten taldean talde izaera indartzea da. Kasu batzutan badago jada talde izaera bat, baina beste kasu askotan ez. Orduan, talde izaera ez dagoenean sortu egiten da, eta jada badagoen lekuan indartu. Adibidez, irakasle talde



ikuspegian elkartzen diren bi erreka irudikatzen ditugu. Aldebatetik, erreferente etikoak, gaiarekiko usteak, sinesmenak, ideologiak eta abar. Bestetik, subjektibitatea, sentitzen duguna. Bi horiek elkartuz osatzen dugu gai horrekiko dugun identitatea.

Horrez gain, prozesu guztian zehar badaude zeharka lantzen diren hainbat arlo. Gure metodologian, adibidez, sormenari eta adierazpenari garrantzi handia ematen diogu. Teknika asko irudikatzeak dira eta deshinibitze fisikoa ere sarri erabiltzen dugu. Izan ere, horrek joko asko ematen du clauzka-gun tabu eta jarrera batzuk apurtzeko, eta hori beharrezkoa da jarrerak aldatu nahi baditugu. Gainera, muga fisikoa ere oso handiak izaten ditugu eta horiek apurtzeak eraldatze prozesuan laguntzen du.

Prozesuan alaitasunak, poztasunak... garrantzia handia du: adiskidetasuna, maitasuna, giro atsegina lortzea, parte-hartzea eta abar. Parte-hartzeak esan nahi du prozesuko kide guztiek erabakimen berdina izatea, prozesua elkarrekin eraikiz.

Genero harremanak ere oso kon-tuan hartzen ditugu. Azken finean, jarrerak aldatzeko prozesu guztien azpian botere harremanen arteko desoreka dago eta oreka hori lortzera joan behar da. Horrek guztiak osatzen du guretzat jarrerak aldatzeko prozesu bat.

Guk batez ere euskararen inguruan egin dugu lan asko, baina ardatza beste bat denean, adibidez generoa, hizkuntzaren alorra ere lantzen dugu zeharka.

Ikuspegi hau Reflect Ekintzan oinarritzen da. Azalduiguzu zer den.

Hego Amerikan sortutako mugimendua da eta oso lotua dago "Hezkuntza Herrikoa" delako mugimenduarekin. Paulo Freireren teoretatik

abiatutako ikuspuntua da eta ikuspuntu horrekin lan egiten duen munduko sare bat da Reflect Ekintza. Urte 7 erdian behin elkartzen gara eta bi helburu izaten dituzte topaketa hauek:

1- Esperientzia anitzak partekatzea. Elkarrekin ikastea eta elkarri irakastea, esperientzietatik abiatuz. Ez dugu nahi hausnarketa gune bat soilik, esperientzietatik goaz bidea eraikitzen eta hala ikuspegia aberasten doa.

2- Sarearen antolakuntza jorratzea: hurrengo bilera prestatu, antolaketa...

Kontinenteka antolatua dago eta orain gu Euskal Herriko sare bat osatu nahian gabilta. Euskal Herrian, ordea, ekintzaileak baino jakin-mina duten gehiago daude, beraz jende gutxi dago ikuspegi honekin lan egiten duena. Beraz, hor gabilta, interesdun horiek ekintzaile bihurtu nahian.

Munduko esperientziak ugariak eta anitzak izan ohi dira. Azken aldiz egon ginenean, hizkuntza minorizatuekin lanean genbiltzanak bi ginen: kitxuarekin lanean diharduten peruarak eta gu. Gaiak orotarikoak dira: emakumeekin lan egiten duten taldeak daude, prostitutekin lan egiten dutenak, gutxiengo etnikoekin lanean dihardutenak edota helduen alfabetatzean besteak beste. Ez gaitu gaiak batzen, lana egiteko ikuspuntuak baizik.

Zein pauso jarraitzen dira prozesuan zehar?

Pausoak eta emaitzak taldearen, lekuaren eta denboraren arabera izaten dira. Dena dela, garrantzitsua izaten da prozesuaren hasieran partaideen espektatibak lantzea eta prozesuan funtzionatzeko balioak adostea. Hori gehienetan egiten da modu sakonean, prozesua luzeagoa edo motzagoa izan. Norbanako bakoitza gaiarekiko nola kokatzen den ikusten dugu eta bere bi-zipena eta historia aztertzen saiatzen gara, hala, gaiarekin duen harremana ulertzeko.

Ondoren, taldean, gaiarekiko inguru hurbila eta soziala aztertzen dira, baita gizarteak garapen hori nola baldintzatzen duen ere. Zeren ikuspegi ho-

Eraldaketa prozesuetan pertsonak dira abiapuntu eta oinarri, beraien lana da prozesua aurrera eramatea.


rren arabera, oinarria prozesuan parte hartzen duten pertsonak izan arren, pertsona horiek gizarteko partaide gisa ulertzen baitira eta ez elementu isolatu gisa. Horrek jada taldearen azterketa bat ematen digu eta segidan aurrera begirako konpromisoak hartzen dira jarrera aldaketa baten ondorioz. Konpromisoei dagokienez, banakakoak eta taldekoak izaten saiatzen gara.

Denbora eta baliabideen arabera, teknikak ere desberdinak dira. Teknikak dinamikoak eta irudikatzeak izan ohi dira, idaztea baino beti hobesten da marraztea edo irudi grafikoak egitea. Jendea ez dago ohituta marrazkiak egiten, baina oso bizkor ohitzen dira.

Zenbat denbora irauten dute eraldaketa prozesuek?

Gure iritziz, 24-30 orduko prozesuak dira egokienak emaitza batzuk lortzeko. Trinkoa bada askoz hobe, adibidez astebete barnetegi batean. Zenbat eta prozesu trinkoagoa, emaitza hobekoagoak. Baina egia esan, 12 orduko prozesuak egitera ere iritsi gara. Trinkotasuna idealena den arren, azkenean baliabideen arabera ahal dena egiten da. Zenbait prozesutan saioak hilabeteen behin egin ditugu.

Jendeak sarri emaitzak eta emaitzak nahi ditu eta gu emaitza eta prozesuaren arteko oreka bilatzen saiatzen gara. Prozesuaren garrantzia erakutsi nahi diegu. Jarrerak aldatzeko adina prozesu ematen dugu, eta espektatibak betetzeko adina emaitza.



Zein da ibilbidean zehar parte-hartzaileek duten papera?

Prozesua parte-hartzaileek egiten dute. Gure papera bideratzaile papera da, teknikak ematen ditugu eta prozesua bideratzen dugu, baina ez emaitza, hori taldeak ematen baitu. Gure lana da bermatzea identitatea ukitzen dugula

eta zeharkako gaiak presente daudela. Baina azterketak eta emaitzak beraienak dira. Ez gara aurretikosten batetik abiatzen, paper zuri batetik baizik. Azterketa bertan hasten da, prozesuaren parte delako. Gainera, beraiek egiten dute, guk ez dugulako beraien errealitatea ezagutzen. Parte-hartzaileen es-

perientzia eta bizipenak, gaia bizitzen eta sentitzen duten modua aztertzen dira eta ondoren, ingurune hurbila aztertzen hasten gara, ikuspegia zabaltzen joanez. Guk hori egiteko bideak egiten ditugu, zubiak eraiki... baina prozesua beraiena da. Hortik denen parte-hartzearen eta inplikazioaren garrantzia. ●

Eraldaketa prozesua abian Urretxu-Zumarragako ikastolan

Elhuyar Aholkularitza aurrera eramaten ari den eraldaketa prozesuetako bat da Urretxu-Zumarragako ikastolarena, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko beste batzuekin batera. Bertan ikastolako kide guztiak ari dira parte hartzen irakasleez gain: jangelakoak, administrariak, eskolazaina... Ehun inguru dira guztira, beraz, hiru taldetan banaturik daude. “Izan ere, hainbeste jendeko taldeak muga hori du, oso zaila dela denekin batera gauza bera lantzea. Beraz, hiru taldetan banatu gara: Haur Hezkuntzakoak, Lehen Hezkuntzakoak eta DBH eta Batxilergokoak. Zuzendaritzakoak, administrariak... talde guztietan sakabanatuta daude”. Prozesu honetan, guztira hiru orduko hamar saio emango dituzte eta orain prozesuaren erdian daude. Hauek dira eraldaketa prozesuan ematen ari diren pausoak::

- Lehenengo espektatibak landu ziren, ea zer espero zuten prozesutik. Espektatiba gehienak, prozesuarekin bat badoaz bertan txertatzen dira. Bestalde, prozesuan beteko ez direnak ere argitu behar dira.

- Ondoren, talde bakoitzak zein balioren arabera funtzionatuko zuen adostu zen.

- Aurrera jarraitzeko, partaide bakoitzak euskararekiko duen ibilbide historikoa eta sentipenak aztertzen joan dira. “Horretarako ibaiaren ariketa egin dugu: orri handi batean testu bat irakurri ostean, norberak bere ibaiarra marrazten du ibai baten irudia baliatuz bere ibilbidea irudikatzeko eta gero taldekideei aurkeztu. Bakoitzak bere ibilbidea aurkeztu ostean, ondorio orokor batzuk ateratzen dira. Adibidez, kasu honetan, esaten zuten beraiengan etxeak eskolak baino eragin gehiago duela beraien hezkuntza jarreretan. Horren esanahia aztertuz, ondorioak pilatzen eta gordetzen goaz”.

- Hurrengo pausoa euskarak ikastetxean izan duen ibilbidea aztertzea izan zen, betiere irudikapenezko ariketen bitartez. “Taldea bakoitza hiru taldetan banatu genuen antzinakotasunaren arabera eta talde txiki bakoitzak esku artean zuen informazioa berreraikitzeari ekin zion. Talde batek 1968tik honakoa birgogoratu zuen, beste batek 1990etik honakoa, eta hirugarren taldeak azken hamar urteen memoria egin zuen. Batez ere azken urteei buruz mintzatzean beha daiteke zein desberdina den bakoitzaren interpretazioa historia pertsonalaren arabera. Azkena sartu direnek eta urte asko daramatzatenek alderdi desberdinak aztertzen dituzte. Hala, ondorio anitzak ateratzen dira erakundearen ibilbide historikoan zehar, eta gero denak erabiliko dira”.

- Hurrengo pausoa erakundearen gaur egungo euskararen azterketa egitea izan da. Horretarako, ikastetxearen mapa planoan jarri eta euskararen erabilera gunez gune aztertu dute: jolaslekuan, korridorean, plazan, komunean, jangelan... Era berean, emaitza horiek baldintzatzen dituzten faktoreak ere aztertu dituzte.

- Ibilbide historikoaren eta egungo egoeraren diagnosiaren ostean, nahi dena zer den zehaztu behar da: zein da euskarak izan behar lukeen tokia? “Betiere gogoan izanez euskararen identitate berri hori, berau baldintzatzen duten faktoreak, ateratako ondorioak... Horrela, gure bidea zehaztuko dugu”. Konpromisoak hartzeko unea da eta horiek pertsonalak eta taldekoak izango dira. “Konpromiso kolektiboaren barruan, irakasleekin batera, erakundeak berak ere erabaki batzuk hartu beharko ditu”.

- Tartean beste saio bat egongo da esplikatzeko zergatik, nola eta zein arrazoirekin eman den urrats bakoitza.

Urretxu-Zumarraga ikastolan ekaina arte egongo dira bideratzaileak. “Ordurako konpromisoak hartuta izango ditugu, eta hurrengo ikasturtean, konpromiso horien jarraipena egiteko beste hiru saio prestatuko ditugu”.



Une honetan 180 pertsona ari dira euskararekiko jarrerak indartzeko prozesua bizitzen eta esperientzia horiek herrialde guztietara hedatzeko asmoz daude.

Ikastoletan ere jarrerak indartzeko prest

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak eta Elhuyar Aholkularitzak euskararen inguruko jarrerak indartzeko bi urteko lankidetzaren hitzarmena sinatu dute.

Euskararen normalizazioa ikastolen helburu izanik, ikastolen mugimenduak urteak daramatza bere hezkuntza erkidegoa osatzen duten eragileengan euskararen aldeko jarrerak lantzen. Besteak beste, Euskaraz Bizi programa du euskararen normalizazioa bultzatzeko bidea. Marko horren barruan, trebakuntza bibentzial bat jarri du martxan bost ikastolan: Oiongo San Bizente ikastolan, La Puebla de Labarkako Assa ikastolan, Donostiako Axular lizeoan, Ziburuko Piarres Larzabal kolegioan eta Urretxu-Zumarraga ikastolan. Une honetan 180 pertsona ari dira euskararekiko jarrerak indartzeko prozesua bizitzen eta esperientzia hauek herrialde guztietara hedatzeko asmoz daude.

Prozesu horien ardura metodologikoa Elhuyar Aholkularitzaren esku gelditu da eta alde bietan osatutako Jarraipen Batzorde batek egiten dio segimendua.

Elhuyar aholkularitzak sei teknirik osatutako lantaldea jarri du proiektuan lanean, eta 2000. urtetik hona eus-

kararekiko jarrera positiboak eta aktiboak indartzeko egin duen lanaren eskarmentua eta metatu duen ezagutza jarri du Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren esku. Ikastola bakoitzean 30 ordu inguru iraungo duen prozesua bizitzen ari dira bertako irakasle eta gainerako langileekin.

2006-07 ikasturtean azterketak eta hausnarketak egiten ari dira eta hurrengo ikasturtean konpromisoen segimendurako hainbat bilera egingo dira. Orain artekoa baloratuz, bai Elhuyar aholkularitzak bai Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak balorazio positiboa egin dute.



Asturan: pausoz pauso kooperatiba bat aurrera eramanez

Andoaingo La Salle Berrozpe ikastetxea

Andoaingo La Salle Berrozpe ikastetxeko ikasleak, egun batetik bestera, enpresari gazte eta aditu bihurtu dira. DBHko 3. mailako ikasleek Ekonomia hautazko ikasgaia lantzeko modu aski praktikoa izan dute. Pio Eraso irakaslearen laguntzarekin, kooperatiba bat sortu zuten, eta gelakide guztien artean eginbeharrak aurrera eramanez, beste edozein enpresa bezala aritu dira salerosketan.

Hasierako oinarrizko ezagutza jaso ondoren, berehala jarri ziren martxan. Taldea banatu ziren: salmenta taldea, administrazio taldea, zuzendaritza taldea, erosketa saila, marketing saila... Sail bakoitzak taldetxoan lana egin eta ondoren gainerako kideei azaltzen dizkie hartutako erabakiak. Batzuk saltzeko produktuak bilatzen hasi ziren, besteak logoa eta katalogoa prestatzen, besteak kontuak egiten... Denen lana eta koordinazioa beharrezko dira. Oso ondo antolatuta daude eginbeharrak banatzeko orduan, eta hori garrantzitsua da "negozioa" ondo ateratzeko.

Egitasmoan parte hartu duten bi lagunek, Aiora Perezek eta Jon Belokik, oso ondo esplikatu digute prozesua. "Guztion artean zer salduko genuen pentsatu genuen: jaki tipikoak eta belarritakoak. Hasieran bakoitzak diru pix-




ka bat jarri genuen, salgaiak erosteko behar genuena. Ondoren, ikastetxean zozketa txartelak saldu genituen, eta hala, produktuak erosi ahal izan genituen".

Produktuak Asturiasko beste ikastetxe batzuetan sortutako kooperatibei erosten dizkiete, hortik kooperatibaren izena, Asturan S.Koop. "Asturias eta Andoainegatik da, eta logoa ere geuk diseinatu genuen". Asturiasen hiru bazkide dauzkate, Mieresen eta Lugonesen horietako bi. Alde bietako salerosketak egiten dituzte. Andoaindarrek Asturiaskoei erosten dizkiete produktuak gero hemen Euskal Herrian saltzeko, eta haiek andoaindarrekin gauza bera egiten dute. "Asturiasko produk-

tuak erosteko katalogoak eskatu genizkien. Guztion artean zer salduko genuen pentsatu eta eskariak egin genituen". Produktu asturiarrak ondo aztertu zituzten eskatu aurretik: prezioa, zenbat eskatu. "Dena katalogo bitartez egiten dugu, guk belarritakoak, jaki bereziak... eskatzen dizkiegu, ondoren hemen saltzeko". Bazkide asturiarrei hemengo produktuak saltzeko, berri, katalogo polit bat prestatu zuten andoaindarrek.


Non salduko dituzten

Aiora eta Jon, biak ASTURANeko salmenta sailean egon dira eta Andoaingo azokan ere, taldearen postua jarri zuten.



Gazteak gustura daude burututako lanarekin. “Guk nahi genuelako sartu ginen proiektu honetan, eta lan hau hurbiletik ezagutzeko aukera izan dugu: hornitzaileak bilatu, erosketak egin, salmenta puntuak bilatu”. Guztira 24 ikaslek hartu zuten parte kooperatiba hau aurrera eramaten. “Hau amaitzen denean, langile guztiok berdin irabaziko dugu”.

Proiektu hau EGE Europar Gazte Enpresaren bitartez eraman dute aurrera. EGE Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako egitasmo bat da, eta ikasleen gaitasun ekintzailea sustatzea du helburu, beren ikasketa prozesuaren subjektu aktibo bihurtuz. Ikasleei beren jarduera egiazko testuinguru batean eta modu praktikoan kudeatzeko eta sortzeko aukera ematen die. Hala, ikastetxe desberdinetako enpresa txikiak elkarrekin harremanak dituzte eta elkarrekin lan egin dezakete. ●



Pausoz pauso

1. HIRUHILEKOAN

- Bazkide izango den ikastetxearen hautaketa
- Kooperatiba osatu
- Logotipoaren diseinua

2. HIRUHILEKOAN

- Enpresa plana
- Finantza iturrien bilaketa
- Produktuen katalogoaren diseinua
- Katalogo trukaketa eta merkatuaren azterketa
- Eskarien tramitazioa
- Salmenta gunearen diseinua

3. HIRUHILEKOAN

- Eskariak jaso
- Produktuen salmentaren antolakuntza
- Emaitzen azterketa
- Kooperatibaren desegitea

Eskolako Agenda 21 programa munduan zehar (I)

Europatik kanpo



Jose Manu GUTIERREZ

INGURUGELAKO 2006-05eko IKERKETA TALDEKO KIDEA

Hurrengo hiru zenbakietan gero eta hedatuago dagoen Eskolako Agenda 21 (EA 21) programari buruzko hiru artikulua aurkeztu nahi dizkizuegu. Lehenengo honetan, nazioarteko egoera plazaratuko da, Europakoa izan ezik. Bigarrean, programa horrek European daukan garapena aztertuko da. Eta hirugarrenean, Euskal Herrian izan duen bilakaeraz eta gaur egungo egoeraz arituko gara.



Jon BENITO

INGURUGELAKO 2006-05eko IKERKETA TALDEKO KIDEA

Aurreko mendeko 80ko hamarkadan Ingurumen Hezkuntzak (IH) bere xedea argitu zuen: IHri buruzko programak ez dira ikasleen jarrera aldaketan zentratu behar, baizik eta ekimenak prestatzeko eta gauzatzeko gai diren ikasleen trebakuntzan. Horrela, eskolak, IHko proiektu zehatz batzuk garatzetik ingurumenarekiko kudeaketa arduratsua bilatzera pasa ziren, horretarako behar diren testuinguruko ekimenak aurrera eramanez.

Era horretan, 90eko hamarkadan *eskola-ekoauditoria* programa jarri zen martxan EAEn, Balearretan lehenengo eskolen auditoriak, *Viure l'escola* eta *Ecocentre* programak, Andaluzian *ALDEA*, Madrilen *Ecoauditorias escolares*, Katalunian *Escoles verdes*, Extremaduran *Ecocentros...*, eta estatuan eskolei zuzendutako nazioarteko *Fon-*



Ritxi HERNANDEZ

INGURUGELAKO 2006-05eko IKERKETA TALDEKO KIDEA

dation for Environmental Education (FEE) erakundearen *eco-schools* programa.

90eko hamarkadan IHri beste kontzeptu bat lotu zitzaion: Garapen Iraunkorra. Horren ondorioz, gaur egun Unescok izendatutako Garapen Iraunkorrerako Ingurumen Hezkuntzaren Nazioarteko Hamarkadan (2005-2014) gaude.

Eskolak, eskolako hezkuntza komunitateak, bere garapen iraunkorrerako konpromisoa garatzeko eta bere ekimena gauzatzeko, ikastetxearen ingurumena kontuan izan behar du: bai ingurumenhurbila, bai udalerrikoa, bai eskualdekoa..., planeta mailako pentsamendua garatuz.

Hori horrela izanda, udaletxe batzuen udalerraren garapen iraunkorra garatzeko nahia eta eskola batzuen ku-

deaketa iraunkorra lortzeko asmoa uzartzen dira. Sinergia hori aprobetxatzeko EA 21 programa sortu da, non eskolak, bere eremuan, garapen iraunkorraren alde aritzeaz gain, bere ingurumenarekiko eta udalerrirako konpromisoa hartzen duen tokiko ekimenekin, hau da, Tokiko Agenda 21 (TA21) programarekin, bat egiten duen. Hori dela eta, zera esan daiteke: azkenik, eskolak IHren eta garapen iraunkorraren alde egiten duela lan eta 1992an Rio de Janeiroan adostutako 21 Programarekin bat egiten duela.

EA 21 programa gaztea da, baina garapen eta oihartzun handia lortzen ari da. Hurrengo lerrootan agertzen diren erreferentziak TA 21etik lotura duten edota udalerrien iraunkortasunerako nolabaiteko konpromisoa duten esperientziak dira, bai EA21 izenarekin edo beste batekin. Aldiz, ez dira agertzen aipatutako lotura edo konpromiso hori ez daukaten esperientziak, EA21 izenarekin agertu arren. Hasieran aipatu moduan, Europatik kanpokoez hasi gara lehendabiziko artikulu honetan.


Afrikan, Asian eta Ozeanian TA 21ekin lotutako hainbat proiektu garatzen ari dira bertako eskoletan. Horietariko asko *eco-school* programarekin erlazionatuta daude, baina tokiko ekimenak ere garatzen dituzte:

- **Marokoko** TA 21 Programa Nazional bat burutzen ari da Marrakex Tensift Al Haouz eskualdean eta Marrakex, Meknes, Benhaddou... hirietan.

- **Senegalen** TA 21 Programa Nazionala ezarrita dago eta Dakar, St Louis, Guediawaye, Tivaouane, Matam eta Louga hirietan garatzen ari da.

- **Hegoafrikako** Durban, KwaZulu-Natal, Buffalo City, Tshwane/Pretoria... hirietan.

- **Togoko** Danyi Ndigbe udalerrian, non *Ingurumena Babesteko Gazteen Elkarte*/Association des Jeunes pour la Protection de l'Environnement (AJPE) sortu den.



- Baita ere **Kenya, Zimbabwe, Ghana, Malawi, Mauritania, Namibia, Nigeria, Tanzania** eta **Uganda** nazioetan.

- **Japonian** *Iwate-ko Ingurumen Sarea Proiektua/Iwate Environment Network Project* garatzen ari dira eta eskolek, udalek, ikerlariek, unibertsitatek eta Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) batzuek hartzen dute parte sare honetan, TA 21en barruan tokiko arazoak konpontzeko.

- **India, Indonesia, Korea, Vietnam, Nepal, Filipinak, Sri Lanka** eta **Thailandia** dira Asiako hego-ekialdeko estatu parte-hartzaileak, non 30 hiri baino gehiagotan garatzen diren horrelako programak.

- **Australian** eta **Zeelanda Berriari** 100 udalerrri ingurutan ari dira tokiko hezkuntza ekimenak garatzen.

Ipar Amerikan udalerriekiko IH programa batzuk garatzen ari dira:

- **Amerikako Estatu Batuetan** Tokiko Agenda *Communities 21* deitzen da. 24 estatuetakoko hiri askotan dago martxan, gehienbat Kalifornia estatuan.

- **Kanadan** 20 hiri daude *Local Action 21ekin* konpromisoa hartuta, Tokiko Agenda 21 bera gainditu nahian.

Latinoamerikak aipamen berezia behar du. Bertan, Brasil, Kolonbia, Ekuador, Peru, Uruguai, Paraguai, Venezuela, Bolivia, Txile, Costa Rica, Guatemala, El Salvador, Kuba eta abar aspaldidanik daude konpromisoa hartuta IHrekin. EA 21 programarekiko adibide batzuk aurkitu ditugu.

- **Mexikoko** *Proyecto Escuelas Verdes-La Agenda 21 Escolar* Guajanatoko Ekologia Institutuak bultzatuta dago. Programa 21eko 36. kapituluak (hezkuntzari dagokiona) eta *Lurrraren Gu-*

tuna hartzen dituzte oinarrizko erreferentziatzat. Urtero 24 ikastetxe desberdinek hartzen dute parte. Guztira, orain arte 72 ikastetxek eta 25.000 ikaslek garatu dute programa. Ezinbestekoa da ikastetxeek tokiko komunitaterako hoberkuntza proiektu bat garatzea.

- **Kuban** *Misión Ambiental* programa daukate martxan *Agenda 21 Infantil* bat garatzeko helburuarekin. 11 eta 20 urte bitarteko ikasleentzat da. Hezkuntza ekimenak eta parte-hartzea biltzen dira programa honetan, non tokiko erakundeak, gobernukoak eta GKEak sartzen diren. Programa horrek Haurrentzako eta Gazteentzako Foro Nazionala egiten du.

- **Ekuadorren** *Proyecto Escuelas Verdes* 2002. urtean sortu zen. Proiektua hezkuntza sistemara IHko tresna baliotsuak eskaintzera dator, bai eskolan, bai udalerrietan gauzatzeko. Udalerrri bakoitzeko *Unidades de Gestión Ambiental* delakoek koordinatzen dute parte-hartzaileen lana.

- **Perun** *Certificación Ambiental Escolar* programa dute. Ikastetxeek bi urteko programa garatzen dute, eta ebaluazio positiboa lortzen dutenak, *Club de Colegios Sostenibles* erakunde barruan sartzen dira. 110 ikastetxe bai-



no gehiago daude sartuta programa horretan. Bereziki EA 21 programa garatzeko *Centro de Altos estudios para el Desarrollo Sostenible* (CAEDES) erakundeak egiten du lan. Estatu mailan parte-hartzea errazteko eta bultzatzeko *Comité Ambiental Juvenil* (CAJU) jarri da martxan.

- **Txilen** *Sistema Nacional de Certificación Ambiental de Establecimientos Educativos-SNCAE* (Eskola Erakundeak Ingurumen Ziurtagiriaren Sistema Nazionala) daukate, eta horren bitartez ikastetxeek *Certificación Ambiental de Establecimientos Escolares* lor dezakete. Programa horren atzean Hezkuntza Ministerioa, Ingurumen Batzorde Nazionala (CONAMA), Baso Bilkura Nazionala (CONAF), UNESCO, Txileko Udalerrien Elkarteak (ACHM) eta Garapen Iraunkorrerako Kontseilua (CDS) daude. Orain arte 100 ikastetxe baino gehiago zeuden programan murgilduta. Ziurtagiria lortu duten ikastetxeek harremanak dituzte antzeko ziurtagiria lortu duten Peruko ikastetxeekin.



- **Brasilen**, Hezkuntza Ministerio-ko *IH Koordinazio Orokorra* (COEA) erakundeak, bere lerro estrategikoen artean hauxe dauka: estatu guztietan, udalerrietan eta eskoletan gauzatzea ingurumena eta bizitza kalitatea eta EA21 garatzea. Era horretan, EA21 programaren antzeko proiektu asko ari dira garatzen memento honetan, Gobernuak berak edota GKEek eraginda. Gobernuak bultzatuta, besteak beste:

1. *Vamos a cuidar do Brasil com as Escolas* (Zainn dezagun Brasil eskolekin) programa: 16.000 ikastetxe inguru

eta 6 milioi pertsona baino gehiago mobilizatzen ditu. Hezkuntza Saileko *Núcleo de Educação Ambiental-NEAk* (IHko Nukleoa) bultzatzen du.

2. *COMVida* (Ingurumen Batzordea eta Bizitza) aurreko programaren azpi-programa bat da. 11-15 urteko ikasleei zuzenduta dago. EA 21 eraikitzea dute helburu nagusia, eta berariazko helburuak hiru dira: IH eskoletan sartzea, *Ingurumena Eskolan* Konferentzia antolatzea eta esperientzien trukatzea bultzatzea.

Egun, 11.000 ikaslek baino gehiagok parte hartzen du eta eskolen arteko Gazte Foroak antolatzen dira.

- **Argentinan** *Sistema de Certificación Ambiental de Establecimientos Educativos* (Eskola Erakundeetako Ingurumen Ziurtagiri Sistema) programa uztartzen ari dira Ingurumen Kudeaketa Sistema bat hedatzeko, arlo historikoa, kulturala eta lurraldekoa bereganatuz. Honaok hiru ardatz hauen inguruan garatzen da: pedagogikoa, eskola kudeaketa eta ingurumenarekiko harremanak. Ingurumena bera hobetzeko ekintza konkretuak egiten dituzte. Eskolek Ekologia Ministerioak ematen duen Bandera Berdea jasotzen dute bi urterako.

Beste alde batetik, EA 21 programa Argentinako Ingurumen eta Garapen



Iraunkorrerako Idazkaritzak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak bultzatzen dute, bertako Euskal Etxe batzuen laguntzaz. 2005. urtean estatuko 12 udalerritan (Colonia Benitez, La Plata, Buenos Aires...) eraman zen aurrera, eta aurrerantzean estatu osora hedatzeko asmoa dago. EAEko Ingurugelatik bi kide joan ziren bertara prestakuntza laguntzeko.

Ikusten denez, Eskola Agenda 21 programa edo Tokiko Agenda 21ekin erlazioa daukaten hezkuntza programak, Europatik kanpo behintzat, indartsu daude eta hazten ari dira. Azpimarratzekoa da programa horiek aurrera eramateko Latinoamerikan dagoen indarra eta kemena. ●

Kontzeptuak

Ingurumena: organismoen eta komunitateen bizitzan eta garapenean eragina duten kanpo-faktore (fisiko, ekologiko, estetiko, kultural, sozial, ekonomiko...) guztien multzoa.

Ingurumen Hezkuntza (IH): gaur egungo eta etorkizuneko planetako ingurumen arazoei-kolektiboki zein bakarka-erantzunak emateko gai diren pertsonak hezten dituen hezkuntza.

Garapen Iraunkorra (GI): hurrengo belaunaldien beharrak asetzeko aukerak arriskuan jarri gabe, oraingo belaunaldien beharrak asetzen dituen garapen ekonomiko eta soziala.

Programa edo Agenda 21: Rio de Janeiron (Brasil, 1992ko ekaina) egin zen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian edo "Lurreko Gobilera"n sortutako Garapen Iraunkorra lortzeko bidean ekintza-plan orokorra.

Tokiko Agenda 21 (TA 21): Tokiko Agenda 21 Ingurumen Ekintza Plan lokalak.

Eskolako Agenda 21 (EA 21): Eskolaren kaliterako eta iraunkortasunerako hezkuntza komunitatearen ahaleginak biltzen dituen Ingurumen Hezkuntzako etengabeko programa, udalerriko garapen iraunkorrean parte hartuz eta lagunduz.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.
Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

otsaila berriak

K@zet@ proiektua

IKTez baliatuz, komunikazioa ikuspegi konstruktibistatik landuz


K@zeta proiektua Baztango herri txikietako 10 eskolak aurrera eraman zuten egitasmoa da. 2001ean Rosa Sensat Fundazioak ematen dituen Pedagogia sarietan finalista izan zen. Orain, Xabi Ballarena eta Nora Salbotx proiektuaren koordinatzaile izandakoek, egitasmoaren garapena azaldu dute Sortzen Ikasbatuaz-ek argitaratu duen liburuan.

Kazeta proiektua informazioaren eta komunikazioaren teknologiak lantresnatzat erabili dituen proiektu zabal da. Ikuspegi gizatiar eta konstruktibistatik, komunikazioa modu ludikoan eta funtzionalean lantzeko metodologia duen egitasmoa.

Duela urte batzuk, IKTak lantzea ezinbestekoa ikusi zuten eskola hauek eta era berean, buruan hainbat kezka pedagogiko zutela, planteamendu berri bat sortu zuten; **k@zet@ proiektua** deritzona. Ikasle eta irakasleen hutsuneetatik abiatuz, teknologia berrietan trebatzea eta komunikazioa lantzea uztartzen dituen proiektua.

Hala, 2000-01 ikasturtean hasiera eman zioten proiektuari. Ibilbidean zehar, tresna askotarikoak erabili zituzten, hala nola, txatak, webgunea, posta elektronikoa... eta dena elkarlanean.

Proiektu zabal honek bere baitan proiektu anitz biltzen ditu eta hiru ikas-



turtetan zehar gauza ugari ekoiztu ziren irakasle eta ikasleen artean: eskola guztien artean posta elektronikoz osatutako ziber-ipuina, webgunea, Euskal Herriko Entziklopedia, Postre Errezetak, margo erakusketa digitala, aldizkari elektronikoa eta abar. Jardunean zehar lau izan ziren lan ildo garrantzitsuenak:

1- Ikuspegi konstruktibistetan oinarritutako jarduera didaktikoa egitea.

2- IKTen demokratizazioa. Baztango bailara nekazal gunea denez, bertako ikasleei aukera hau eskura jarri nahi izan zitzaion. "Nahiz eta gaur egun IKTak asko zabaldu diren, proiektuaren hasiera garaian landa guneetan haurrei baliabide hauek eskaintzeko beharra ikusi genuen", aipatzen du Xabier Ballarenak.

3- Ikasle eta irakasleen trebatzea, hutsuneetatik abiatuta. "Garrantzia eman genion beste gai bat, maisu-maistren prestakuntza izan zen, alde konstruktibistatik beti ere. Ikastaro bat egin ordez, egin behar genuenaren gainean ikasi nahi genuen. Behar genuenaren araberrako formazioa antolatzeko beharra genuen."

4- Ikasleen lanaren sozializazioa.

K@zet@ proiektua liburua, egindako lanaren ekarpen eta lekuko

Proiektua duela urte batzuk garatu bazen ere, Xabi eta Nora liburua honetan prozesua azaltzen dute, ekarpen gisa. "Alde batetik, liburuak guk egindako lanaren inguruan teorizatzen du, eta baita lana amaitu ondorengo hausnarketak bildu ere. Bestalde, proiektuak ere azaltzen dira, asmoak, helburuak, ondorioak...". 1999-2002 arteko prozesua biltzen du, hiru ikasturte horien garapena eta zutabe teorikoak eta filosofikoak azalduz. Liburuarekin batera CD bat dator, haurrek eskoletan ekoiztutako gauza guztiak biltzen dituena; errezetak, marrazkiak... Lan tresna baliagarria izan daitekeelakoan argitaratu du liburua Sortzen-Ikasbatuazek.

Baztango herrietako eskolak elkarlanean

200-800 biztanle bitartekoak dira 10 eskola hauen herriak: Almandoz, Amaiur, Arizkun, Arraioz, Azpilikueta, Erratzu, Gartzain, Irurita, Oronoz eta Ziga. Eskola gehienetan adin orotariko ikasleek gela bateratuetan ikasten dute eta irakasle bat edo bi egon ohi da, haur kopuruaren arabera. Ikastetxe bakoitza autonomia da, ez daude zentro baten gisa antolatuta, baina irakasleen erabakiz, astean behin biltzen da talde osoa ekintzak elkarrekin koordinatzeko. Proiektu honen garapenak eskolen arteko harremana eta komunikazioa estutu zuen. Nahiz eta gaur egun ez duten proiektuarekin jarraitzen, lan taldean koordinatzen jarraitzen dute.



Euskal Herriko hainbat liburutegik saria jaso dute irakurketa sustatzeko egindako kanpainagatik

Irakurzaletasuna sustatzeko IX. Maira Moliner kanpainaren deialdiko sariak jaso dituzte Euskal Herriko hainbat liburutegik. Espainiako Gobernuak Kultura Ministerioak egiten du deialdia eta 50.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan liburutegiek haur eta gazteen artean irakurtzeko zaletasuna pizteko antolatzen dituzten jarduerak saritzen dira. Liburutegiek 200 liburu jaso dituzte saritzat eta herri hauetakoak dira: Andoain, Artziniega, Basauri, Dulantzi, Eibar, Elgoibar, Ermua, Etxebarri, Iruña Oka, Iurreta, Legazpi, Markiña-Xemein, Oteiza, Santurtzi, Sartaguda, Soportua, Zaldibar, Zalla, Zamudio eta Zumarraga.

Urtean zehar hainbat kanpaina eta jarduera egiten dituzte haur eta gazteen irakurzaletasuna bultzatzeko: erakusketak, "irakurri" kanpaina, irakurleentzako txokoak sortzea, bisita gidatuak, haur eta gazte liburuen eguna, idazleekin topaketak, ipuin kontalarien saioak, ipuin kontalarien trebetasuna eta teknika lantzeko tailerra, literatura lehiaketa eta abar. Ekin-tza horien bideragarritasuna, originaltasuna, berrikuntza eta eraginkortasuna baloratzen dira, eta baita helburuen argitasuna ere.



Jolas gaitezen CD-ROMa

Euskarri informatikoko ikasmateriala euskaraz Hezkuntza Bereziko ikasleentzat

IKTak ikasleei beren ikasketa prozesuak era autonomoagoan garatzeko tresna esanguratsuak bihurtu dira. Gainera, hauek eskura izateak hezkuntzan gerta daitezken desberdintasunak gutxitzen lagun dezake. **Jolas gaitezen** CD-ROMak, ikaslearen ezaugarrietara egokitzuz, bere garapen propioa indartzen lagunduko dizkion banakako lanabesak eskaintzen ditu.

Material hau Gasteizko Lope de Gereñu ikastetxeko Angela Fernandez eta Jose Manuel Beltran irakasleek sortu dute. Bertan, ikastetxean, erabili eta probatu dute ikasle askotarikoekin, eta erabilera horren poderioz egokitzapenak eta hobespenak egin dituzte.

Denei, bereziki premia bereziak dituztenei, partaidetza eta ikaskuntzarako trabak gainditzeko lagunduko dien tresna egokiak aurkeztzen ditu, ikaslearen ahalmena eta ikasgaitasunak ahalik eta gehien garatuz.

CD-ROM hau bereziki Hezkuntza Premia Bereziaren esparruko funtsezko hutsuneak asetzera dator, batez ere, komunikazio arloan eta lengoia arloan beharrak dituztenei. Eta hori, informatikak eskaintzen duen erabilgarritasun, erraztasun eta laguntzarekin uztartzen du. Sistema informatiko honekin ezer gutxi argitaratu da euskaraz, eta abantaila dextente ditu, soinua, koloreak, erantzuna... elkarreraginezko materiala da.

Ikasle bakoitzari bere ikasketa prozesua antolatzen eta apendizaiak ziurtatzeko estrategia bereziak lantzen laguntzen dio. Ikasleari autonomia ematen dio material hau bakarrik ere erabiltzeko, eta era berean, helduekin naiz kideekin erabil dezake. Sagua ezingo balitz erabili, ukimen-pantailen bitartez erabil daiteke.

Lengoiaren jabetze prozesua, komunikaziorako gaitasuna eta mintzai-



raren ekoizpena lortzea bilatu da. Materialaren helburu nagusia, hizkuntza lantzeko euskarri informatikoa duen material askotarikoa sortzea izan da, batez ere.

Aniztasunaren trataera irizpidetzat, ikasmaterialak adin desberdinetako Premia Bereziako ikasleak izan dituzte mugimen urritasuna dutenak, autismo espektroan kokatzen direnak, garun paralisia dutenak, Down sindromea dutenak, Joubert sindromea dutenak, hizkuntzan atzerapenak dituztenak, eta abar.

Material hau genero anitzekoa da, ipuinak, abestiak, asmakizunak, errezetak... ditu eta hainbat arlo jorrotzen ditu: fonetika, semantika, lexikoa, morfologia... .

Agian sortutako material originalaz gainera, ikasmaterial moldatua eta egokitua jasotzen du CD-ROMak, hala nola argitaletxe zenbaitek kaleratutako ipuinak, kontakizunak, abestiak eta abar.

Ezaugarriak:

* **Material informatikoa**, aukera anitzekin: soinua, irudia, erantzuna... elkarreraginezkoa.

* **Euskaraz** dagoen bakarra.

* **Erabiltzaileari autonomia** ematen dio bere kabuz ibiltzeko.

* **Genero anitzekoa**: abestiak, errezetak, asmakizunak, errezetak...

* **Fonetika, semantika, lexikoa eta morfologia** lantzen ditu.

Bai, hizkuntza eredu berria behar da



Derrigorrezko irakaskuntzako hizkuntza ereduak izan ziren eztabaidagai Martin Ugalde Foroak antolatutako *Hizkuntza ereduak bezkuntzan erreformarako proposamenak* hitzaldian. Nahiz eta Euskal Herri osoari dagokion gaia izan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako egoeraz aritu ziren hizlariak. Izan ere, otsailaren erdialdera aurkeztuko du EAErako hizkuntza ereduaren proposamena Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak Legebiltzarrean. Ana Eizagirre (EHIGE), Erramun Osa (EHIK) eta Julen Etxeberria (Sortzen-Ikasbatuaz) hizlariak bat etorri ziren hezkuntzak ikasle elebidunak edo eleanitzak lortu behar dituela eta egungo ereduak hori

ez duela bermatzen esaterakoan. “Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan emaitzak ez dira nahi ditugunak. Garbi dago memento honetan ereduak arrazoi politiko eta laboralengatik mantentzen direla” aipatu zuen Ana Eizagirrek. “Euskara modu eraginkorrean ikasteko era bakarra irakaskuntzako hizkuntza bakarra euskara izatea” dela baieztatu zuen Julen Etxeberriak. Erramun Osa “euskara eta euskal kultura ardatz dituen eredu eleanitza” defendatu zuen, “gainerako hizkuntzak baztertzen ez dituen eta helburua ikasle eleanitzak heztea duena. Eredurik gabeko egoerara iritsi beharko litzateke eta horretarako 5-10 urte bitarteko trantsizio aldia be-

har da”. Bitartean ereduak mantentzearen alde agertu zen, betiere D ereduaren aldeko inertzia indartzuz. Etxeberria eta Eizagirre, aldiz, ez ziren gehiago itxarotearen alde agertu. “Neurri batzuk ezin dira hartu oraintxe, adibidez, legea aldatzea. Baina bitartean, beste batzuk har daitezke. Esate baterako, datorren ikasturtean EAEko Haur Hezkuntza osoa D ereduaren eskaintzeko 100 irakasle nahikoa lirateke, eta hori posible da”.

Etxeberriak Euskararen Legea aldatu behar dela aipatu zuen, “gurasoen aukera askatasuna bermatzen duelako eta ez ikasleen eskubidea, eta hori da lehentasuna duena”. Entzuleen artean zegoen Josune Ariztondo EBBko idazkariak beste lege bat aldatzeko beharra ikusten du: “Gutxitan aipatzen da Funtzio Publikoaren Legea eta horrek traba gehiago sortzen ditu”. Jon Moñux EILASeko kideak “perfilen dekretua ere giltzarri” dela nabarmendu zuen.

Ikastetxeen autonomiaz ere hitz egin zen; autonomia bai, baina azkenean eta tarteko helburuak ondo zehaztuta baldin badaude denentzat.

Kanpoko zein barneko ebaluazioak eta etorkinen euskalduntzeak ere berebiziko garrantzia zutela azpimarratu zen.

Ikastaroak

* **Anorexia eta Bulimia. Elikaduraren Jokaeren Nahasketa (EJN) Noiz:** urtarrilak 31, 19:00etan. **Non:** Irungo Txingudi Ikastolako bideo gelan. **Maileak:** Garbiñe Agirre (ACABE Gipuzkoako koordinatzailea) eta Maddi Arrazola (Psikologoa eta nutrizionista). **Informazio gehiagorako:** Txingudi ikastola, tel.: 943 616 054.

* **Haurra heriotzaren aurrean. Doluaren garrantzia. Noiz:** otsailak 8, 19:00etan. **Non:** Irungo Txingudi Ikastolako bideo gelan. **Maileak:** Patxi Izagirre psikologoa. **Informazio gehiagorako:** Txingudi ikastola, tel.: 943 616 054.

* **Literatura txokoa: Juan Kruz Igerabide. Noiz:** otsailak 28 eta martxoak 14, 28, 17:30-19:30. **Non:** EIBZ (Mokarte parkea z/g, Uharte). **Maileak:** Eibz-ko irakasleak eta Juan Kruz Igerabide. **Informazio gehiagorako:** www.pnte.cfnavarra.es/ikastaroak/index.htm

* **Hizkuntza Jolasak II. Ahozko eta idatzizko hizkera ikasgelan lantzeko jolasak. Sakontze maila. Non:** EIBZ (Mokarte parkea z/g, Uharte) **Noiz:** otsailak 6, 13, 27 eta martxoak 6, 17:30-20:00. **Maileak:** Urtxintxa eskola. **Informazio gehiagorako:** www.pnte.cfnavarra.es/ikastaroak/index.htm

* **Psikomotritatea eta jolasa 0-3 zikloan (GARATU 06-07). Noiz:** martxoak 5 eta apirilak 18, 17:30-20:00 **Non:** Bilbon, leku zehatza erabaki gabe. **Maileak:** Elena Herran. **Informazio gehiagorako:** www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/die11/es_2070/cursos_garatu_2006_2007.html

Lanbide Heziketa erreferente bihurtzen lagundu dutenei aitorten ekitaldia egin die Hezkuntza Sailak

Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak aitorten ekitaldi bat egin berri du Donostiako Miramar jauregian Lanbide Heziketako ikastetxeak, irakasleak, adituak, enpresariak eta abar eskertzeko. Orain dela 10 urte abiatu ziren kalitatearen aldeko apustuarekin, eta emaitza onak ikusita, hori ospatzeko unea dela ikusi dute. Tontxu Campos Hezkuntza sailburuaren hitzetan “duela 10 urte Lanbide Heziketako azpi sistemak bikaintasunari eta kalitateari heldu zion, eta orain ahalegin horien emaitzak ospatu nahi ditugu. Gaur egun, gure azpi sistema eredu bihurtu da Europan, Asian eta baita Latinoamerikan ere”.

EAEko Lanbide Heziketako sei ikastetxek lortu dute Urrezko Q, 33 zentrok Zilarrezko Q, 39k ISO 9002 ziurtagiria, 20 inguruk ISO 14000 eta bostek Investor in People. Eusko Jaurilaritzako Lanbide Heziketako eta Etegabeko Ikaskuntzarako Sailordetzak ere ISO 9002 ziurtagiria du. “Dauzka-gun ziurtagiriak eta aitormenak ikusita, onenak gara. 1.000 biztanleko ziurtagiri gehien dugunak gara” azaldu du sailburuak.

Ekitaldian bildutakoak ez ziren hasi kalitateaz zekitena erakusten, baizik eta giro lasaian 10 urte hauetako bizipenak eta anekdotak kontatzeko baliatu zuten. “Orain dela 10 urte, gela honetan bertan, Gipuzkoa 21 taldeak antolatuta, Kalitatea Hezkuntza eta Enpresaren inguruko esperientziei buruzko nazioarteko hitzaldia egin genuen” gogoratu zuen Iñaki Mujika Lanbide Heziketako eta Etegabeko Ikaskuntzarako sailburordeak. “Ideia hura izan zutenak, ondoren baliabideak jarri zituzten bi sailburuak eta nola ez, lan izugarria egin duten ikastetxeak eskertu nahi ditugu”.

Mujikaren iritziz, kalitatearen aldeko apustu honekin ikastetxeek antola-



Franklin Schargell Kalitateko Elkarte Amerikarreko lehendakaria, Tontxu Campos Hezkuntza sailburua eta Daniel Meade Monterreyko (Mexiko) Institutu Teknologikoko zuzendaria aitorten ekitaldian.

keta ona edukitzea lortu da. “Eta azkenean, antolaketa on batekin gauzak askoz errazago eta hobeto egiten dira. Ondo antolatutako ikastetxeek emaitza askoz hobeak izaten dituzte, eta horigarbi dago”. Ondo antolatuta egoteak esan nahi du bezeroa zein den jakitea, hori asebetetzeko zer behar dauden jakitea, hori egiteko zer prozedura dauden eta horietan akatsak non dauden ezagutzea, zer baliabide dauden jakitea eta lidergoa izatea, bai zuzendaritzak eta bai irakasleak, bera baita prozedura guztietan eta ikasleekin gelan egoten dena.

Behin hori lortuta eta etorkizunera begira jarrita, hurrengo erronka hori mantentzea eta berrikuntza dira, Mujikak adierazitakoaren arabera. “Berrikuntzan sartuta gaude buru-belarri. Errenterian Tknika Lanbide Heziketako berrikuntzarako zentroa daukagu. Horrekin eta ikastetxeekin harremanetan egonez, berrikuntza guztiak ikastetxeen bitartez enpresetara nola eraman ditzakegun aztertzen ari gara”.

Gaur egun ikastetxe guztiak sarean ari dira lanean eta elkarri lagunduz jarduten dute.

Ekitaldian parte hartu zuenetako bat izan zen Daniel Meade Monterreyko (Mexiko) Institutu Teknologikoko zuzendaria. Kalitatea hezkuntza eta ikerketa prozesuak aztertzen aitzindariak izan ziren euren zentroan eta EAEko Lanbide Heziketako zuzendaritzako bost lagunek hiru urteko formazioa jaso zuten berarekin. Geroztik urtero etorri izan da ikastaroak ematera eta jarraipena egin du.


Kalitatea neurtzeko hiru eboluzio fase daudela dio: “Lehenengoa errekurtsioa: hezkuntza instituzio baten kalitatea du errekurtsioak baldin baditu. Bigarren fasea prozesuak dira, hau da, ez da nahikoa baliabideak edukitzea, horrez gain beharrezkoa da horiek ondo kudeatzea. Arlo horretan, gertatu den aldaketa esanguratsuena alderdi pedagogikoa izan da, hots, irakasleei teknika didaktikoak erakustea ikasle aktiboekin lan egiteko. Hirugarren fasea ondorioekin lan egitea da, ondorioen arabera kalitatea”. EAEko Lanbide Heziketa hirugarren fase horretan sartzeaz dago. Meaderen esanetan, “hurrengo 20 urteetan hezkuntzako kalitatearen esparruan nagusiko den gaia izango da”.

argitalpenak



Ipuinak ez sexistak izateko gida URTXINTXA ESKOLA ETA EMAISIA ELKARTEA

Ipuinek, haurrak txikiak direnetik, heziketarako baliabide ezin hobea eskaintzen digute. Haur literaturak jendarteratze prozesuan duen funtzio argienetakoa eredu femenino eta maskulinoen igorpena da. Bilduma honetan ipuinen gaineko alde teorikoa (ipuinen funtzioak, haurren garapena, irudiak...) eta lanketarako adinka sailkatuta 25 ipuinetako fitxak aurkitzen dira. •



Txabola terapeutikoa Pako Aristi ELKAR

Oihana gaixorik dago, eta aitona-amonon baserrira bidali dute sendatzerara. Bakea behar du, lasaitasuna, isiltasun pixka bat eta aire sanoa. Aitona ez da psikologoa, baina oso umore ona dauka, baita amonarekin haserretzen denean ere. Amonari oster, aitonari errieta egitea gustatzen zaio batzuetan. Umorea eta maitasuna oso sendabide onak izan daitezke batzuetan. •




Sareko euskarazko produktuen katalogoa UEU

Sarearen euskarazko eskaintzez gozatzeko katalogoa dugu honakoa. Bertan, Interneten ageri diren produktuei buruzko informazioa biltzen da: informatikako tresnak eta baliabideak eskaintzen dituzten atariak, musikari buruzko web guneak, aldizkari elektronikoak, denbora-pasarako jokoak, informazio orokorreko guneak eta ikaskuntzari lotutakoak. •




Supositorioak otsoarentzat Miren Agur Meabe GILTZA

Sukarra baduzu, eta ez tul eta ez tul ari bazara, bi gauza gerta litezke: supositorio bat ipintzea, edo ez ipintzea. Ipintzen ez badizute, lasai, ez da ezer gertatzen. Baina supositorioa ipintzen badizute, bi gauza gerta litezke... Horrelaxe hasten da aukeraz betetako ipuin hau. Sormenarekin jolasten du idazleak eta modu dotorean apaintzen ditu Eider Eibarrek pasarte guztiak. •



Iruzurrak historian GAIK

Iruzurrak historian liburuan, engainu entzutetsu batzuk aukeratzen dira iruzurrek historian bete dezaketen zeregina azaltzeko: Piltdownmeko giza kiaren inguruko faltsukeria; Troiako gerraren inguruan dauden duda ugari; Errolanen mitoaren sorrera interesatua; Gorbeian azaldutako “kapera sixtinoa”; tenplarioen “perbertsioa”; Nafarroako erregeen eskumikua; “Konstantinoren dohaintza”;... •



Antzezten... teketen ten! Aizpea Goenaga EREIN

Lau antzeztan ditugu liburu honetan, eta urteko lau urtaroekin batera datoz. Aizpea Goenaga aktoreak garaian garaikoa antzezteko proposamena egiten digu, horretarako erraztasunak eskainiz; dekoratua nola egin, nola moldatu pertsonaiak, adinaren arabera testua egokituz... Hau da, antzerkia parte-hartzaileen arabera moldatzeko aukerak zabalduz. •

... goza nazazu gehiago

Erabilera *janditzen*



Jaime ALTUNA

URTXINTXA AISIALDI ESKOLAKO KIDEA

Honek arrautza ekarri...

Aurreko hilabeteetan atal honetan Helena Baraibarrek eta Kristina Boanek gela barruan erabilera handitzeko proposamenak **ekarri** dizkigute.

Honek erretzen ipini...

Datozen aleetan, berriz, beste hainbat saltsa **ipini** behar ditugu berotzen orrihonetako labean. Horretarako, ikasgelatik aterako gara, gelaz kanpoko jardunei erreparatzeko. Izan ere, Iñaki Eizmendik iazko 101. alean azaldu zuen moduan, "haurrek eta gazteek euskara egitea lortu nahi bada, eskola orduz kanpoko jardueratan euskaren erabilera sustatzea oso garrantzitsua da. Jarduera hauek, ikastorduetan egiten den lanaren osagarri oso garrantzitsuak dira".

Honek gatza botata...

Mota honetako jardunen eltzera **gatza** botako dugu jangelaz hitz eginez. Gero eta haur gehiagok bazkaltzen du eskoletako jangeletan. Jolas ordua eta autobusarekin

batera, gelatik kanpo baina eskolarekin lotuta, egunero egiten den ekintza da. Beraz, bertan egiten den hizkuntzaren trataerak garrantzi handia izango du eta jangelako hezitzaileen zereginak zeresan handia du tarte horretako hizkuntza erabileran.

Jangelan hizkuntzaren erabileran eragiteko estrategiak planifikatzeko garaian bi une bereiztea komeni da: bazkal ordua eta bazkaldu ondorengo (edo aurreko) tarteak.

Honek dastatu...

Bazkaltzeko erabiltzen den ordu erdirako planifikazio handiegirik ezin da egin baina hainbat estrategia eta tresna erabiltzeko aukera izango dugu. Estrategien gainean aritzeko *Hezitzaileek asko egin dezakete* proiektua oso erabilgarria suertatuko zaigu. Hizkuntza tresnak, aldiz, hainbat iturritatik jaso ditzakegu. Urtxintxa Eskolak eskaintzen duen *Haur bizkera eta jolas bizkera: lagunarteko bizkera haur jolasetan eta aisialdi uneetan* ikastarorako horietako tresna batzuk bildu ditugu. Tresna horiek jangelako eguneroko jardunean barneratzeak sekulako eragina izan dezake hizkuntzaren motibazioan, gaitasunean eta erabileran. Jarraian horietako batzuk **dastatuko** ditugu gaurko menu berezi honetan:

* Bazkaltzen hasi aurretik: **abestia**

- *Bazkaldu nabi dugu, bazkaria delako gosearen kontrako sendagarria!*

* Lehen platera: **hitz jolasak eta onomatopeiak**

- *Dilistak! Egin txista-txista!* (Eta entsaladarako: *Olio!* *Ozpinaren nobioa* eta *Oz-*

pina! *Olioaren lagun-mina.*⁽¹⁾

- Aho betean jan: *mauka-mauka*, irentsi: *klik*, jan: *graust-graust*, edan: *zanga-zanga*...

* Bigarren platera: **atsotitzak**

- *Gose denak, arrain fina baino lodia nabiago*⁽³⁾

* Postrea: **igarkizunak eta lokuzioak**

- *Ezetz asmatu gaurko postrea?... Barkillozko gorputza, barkillozko punta zorrotza eta aboan izotza.*⁽⁴⁾

- Gaur musuak ez ditu dituzue (gustura jan) eta San Tripon egun duzue (ase).⁽⁵⁾

Honek dena jan zuen...

Eta **dena** jan da edo dena jan gabe ere, bazkal ondorengo tarteak erabilgarria suertatuko zaigu hizkera ez formala sustatze aldera hainbat jarduera antolatzen. Dena den, gure proposamena ez da tarte horiek gehiegi dinamizatzea, haurrek denbora libre ez dinamizatu edukitzeak garrantzia baitu. Adibide gisa, azken urteetan, hainbat ikastetxeetan antolatzen dugun Juana Joxepa Tronpeta izeneko jolas dinamizazioa aipatuko dut⁽⁶⁾. Jolas dinamizazio honetan Juana Joxepa Tronpeta pertsonaiak gutunak bidaltzen dizkie haurrei eta astean behin begirale batekin, ordu erdiko jolas saio dinamizatu egiten da. Hainbat astetan, euskaraz jolasteko eta euskararekin jolasteko hainbat tresna eskaini ondoren, Juana Joxepa Tronpeta pertsonaia eskolan agertzen da.

Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila eskolako jangelan.

Erreferentziak:

(1) LERTXUNDI, ANJEL: *Aizak eta aizan elkarrekin dantzan*. Elkar.

(2) IBARRETXE, I.; MTZ. LIZARDUIKOA, A.: *Hizkuntzaren bibotzean: euskal onomatopeien biztegia*. Gaiak.

(3) GARATE, Gotzon: *Atsotitzak*. BBK.

(4) OLASO, Xabier: *Auskalo!* Pamiela.

(5) Intza proiektua. Euskal lokuzioak sarean. <http://intza.armiarma.com>

(6) Urtxintxa Eskola. www.aisia.net



Caroline PHILLIPS

ABESLARIA

Azken urteetan Euskal Herrian bizi naizen arren, Kalifornian jaioa naiz, San Frantzisko hirian. Han euskaldun pila bat bizi dira, baina nijatorriz ez naiz euskalduna eta ez dut arbaso euskaldunik. 25 urterekin egin nuen topo euskararekin, Parisen, nire senarra ezagutu nuen.

Ordura arte Amerikako Estatu Batuetako eskola eta heziketa ezagutzen nituen. Eta erran dezaket, biziki desberdina dela hango heziketa Europako beste herrialde batzuetakoarekin konparatuta, bai etxekoa eta bai eskolakoa. Ingalaterrako eredurak hurbiltzen dela

School, école, eskola...

errango nuke. Frantziakoan, Espainia-koan, Italiakoan eta Euskal Herrikoan inportanteena kolektiboaren mentalitatea da. Taldean egiten da lana eta taldearekin batera zoaz, ez aitzinean ez gibelean. Amerikako Estatu Batuetan biziki desberdina da, klaseak norbana-koarentzat dira eta bakoitzak bere erritmoan segitzen du. Horren baitan jarraitzen du aitzinera, ez dago talderik eta ez zaio inori itxaron behar.

Bada beste desberdintasun bat ere. Oso ohikoa da “nik hori ongi egiten dut” esatea. European horri harrokeria deitzen zaio eta ez dago ongi ikusia, seguraski Europako erlijoiaren edukazio-agatik. Amerikako Estatu Batuetan, aldiz, norberak bere buruarengan konfiantza izatearekin lotzen da. Irabazle izateko mentalitatea bultzatzen da. “Zuk ez baduzu zure danborra jotzen, nehorik ez du joko zuretzat” erraten da.

Hango heziketa ez da oso sakona. Adibidez, filosofia ez dugu batere ikusten. Nik unibertsitatean deskubritu nuen filosofia.

Errango nuke 18 urte arteko ikasketak errazagoak direla han. Gero unibertsitatea biziki gogorra da. Hemen, ordea, alderantziz da. Han 18 urte arte lasaiagoa da, baduzu denbora nerabe izateko eta beste gauzak egiteko. Ni lizeo artistikora joaten nintzen 14-18 urte artean eta banuen egunero dantza, kantua eta antzerkia. Egunero hiru ordu arlo artistikoa lantzeko. Hemen ez da hainbeste lantzen beste gai batzuk daudelako. Gure alabak 12 urte ditu eta 5. mailan dago. Euskara, frantsesa eta gaztelania ikasten ditu, eta datorren ikasturtean ingelesarekin hasiko da. Goizeko 8etatik arratsaldeko 5etarat egoten da eskolan, pixka bat gogorra iruditzen zait, ez du denbora askorik beste aktibitateak garatzeko.

25 urteren ondotik pozik nago ikasi nuen ereduarekin. Aukeran jarriko balizkitate hemengo eta hango ereduak, berriro ere hango ereduak ikasiko nukeela iruditzen zait.



Nafarroan bizi diren hauren %25ak gehiegizko pisua du eta %12,3k gizentasun arazoak. Kanpaina pilotua abian da 6-12 urte bitarteko haur nafarregan jateko ohitura osasuntsua eta jarduera fisikoa sustatzeko asmoz.

Iturria: Nafarroako Gizarte, Ongizate, Kirol eta Gazterriko Kontseilua

Ale monografikoak

1) Irakurketa eta idazketa konstruktibismoaren ikuspegitik (agortuta)

2009ko UDA BERRIA
Estresa irakaskuntzan
Irakasleak eta ikasleak
16. monografikoa

2008ko URTEA
Arreta hiperaktibitatearekin nahastea
15. monografikoa

2008ko UDA BERRIA
OTEITZA
14. monografikoa

2008ko URTEA
BRUNER
13. monografikoa

2008ko URTEA
Heriotza heziketan
12. monografikoa

2008ko URTEA
Howard GARDNER
11. monografikoa

2008ko URTEA
Antzuolako herri ikastetxearen proiektua
10. monografikoa

2008ko URTEA
Etorkinak gure eskolan
9. monografikoa

2008ko URTEA
Hezikuntza idatzia
8. monografikoa

2008ko URTEA
Kohlberg
7. monografikoa

2008ko URTEA
Vigotski
5. monografikoa

2008ko URTEA
Atxikimendua
4. monografikoa

2008ko URTEA
Baloreak irakaskuntzan
3. monografikoa

2008ko URTEA
Marraski ekoizpenaren bilakaera
2. monografikoa

2008ko URTEA
konstruktibismoaren ikuspegitik
1. monografikoa

2) Marraski ekoizpenaren bilakaera
3) Baloreak irakaskuntzan
4) Atxikimendua

12 euro
hik hasi

2005eko ABENDUA
Pedagogo sortzaileak
teorien iturburu
17. monografikoa

5) Vigotski
6) Afektibitatea eta Sexu Hezikuntza
7) Kohlberg

8) Hizkuntza idatzia eta ikasleen aniztasuna
9) Etorkinak gure eskolan
10) Antzuola herri ikastetxearen proiektua

17) Pedagogo sortzaileak
16) Estresa irakaskuntzan

11) Howard Gardner
12) Heriotza heziketan
13) Jerome Seymour Bruner

14) Jorge Oteitza
15) Arreta gabezia hiperaktibitatearekin nahastea

Nairobitarra rekin bidaiaria jolas

"Nairobitarra: mundua
ezagutzeko jolasa" k
tokian tokiko
bitxikeriak
ezagutzeko aukera
eskaintzen dizu.

38 €

Aukeratu
kontinentea,
ibilbidea, bofa dardoa
eta ekin bidaiari.

8 urtetik
gorakoentzat

eskaerak

943 37 15 45 • denda@argia.com
www.argia.com

